Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko II. Plana

2006 - 2010

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Salneurria/P.V.P.:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko II. Plana

2006 - 2010

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

Argitaraldia:

Ale-kopurua:

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: Bell Comunicación, S.Coop.

Inprimatzea:

ISBN:

Lg:

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honekin EAEko administrazio publikoek asetzeke dauden beharrei erantzuteko konpromisoa hartu dute, honako printzipio hauek oinarritzat hartuta: familiak –belaunaldien arteko eragile nagusia den aldetik– betetzen duen eginkizuna bultzatzea eta osatzea; familia-aniztasunarekiko errespetua bermatzea eta sustatzea; familiarik ahulenetan sor daitezkeen bazterketa- edo babesik gabeko egoerak prebenitzea; partaidetza aktiboa sustatzea; familia-harremanetan dauden gatazkak prebenitzera, gutxitzera eta/edo bideratzera zuzendutako baliabideak sustatzea; eta familiei haiek nahiago dituzten zaintza-formulak hautatzeko aukerak eskaintzea. Azken buruan, familiei babes- eta laguntza-sistema integrala eskaintzea du helburu.

Aipatutako helburuak arrakastaz lortzeko ezinbestekoa da –autonomia, foru eta udal– erakundeen arteko behar bezalako lankidetza eta koordinazioa. Bai Eusko Jaurlaritzak, bai foru aldundiek, baita udalek ere, lanean dihardute egitarau-lanabes berri honetan sartutako hobekuntzak, zabalkuntzak eta hobekuntzak eraginkortasunez lagungarri izango direlakoan, aurreko garaian lortutako lorpenak sendotzeko, baita EAEko familien politikak arian-arian Europako proposamenik aurrerakoienetara egokitzeko ere.

Bigarren Plan honen helburu nagusia da, hain zuzen ere, familia babesteko eta laguntzeko sistema osoa eskaintzea, prestazio unibertsalak –gero eta zabalagoak– bermatuz, lana eta familia bateragarriak egiteko erantzun desberdinak emanez eta, familia-mota guztietan eragina duten hutsuneak konpontze aldera, zerbitzuak koordinatzeari eta sortzeari ekinez. Azken finean, kontua familien eta euren kideen gizarte-ongizatea hobetzen laguntzean datza-eta.

Joseba Azkarraga Rodero
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua
Eusko Jaurlaritza

AURKIBIDEA

Aurkezpena 9

I EGOERAREN DIAGNOSTIKOA 11

1.1. Joera demografikoak 13
1.2. Lan-merkatuaren eta etxebizitzaren egoerak 16
1.3. Kultura-sistema 19
1.4. Familia-sisteman indarra hartzen ari diren fenomenoak 24
1.5. Erakundeen erantzuna 26

II SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN LEHEN PLANAREN EMAITZAK ETA LORPENAK 31

III FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN PRINTZIPIOAK 39

IV HELBURUAK 43

V ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONPROMISOA FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN ESPARRUAN 47

VI JARDUN ILDO ESTRATEGIKOAK 51

1. ildo estrategikoa.- Araudia garatzea 53
2. ildo estrategikoa.- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea 58
3. ildo estrategikoa.- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egitea 62
4. ildo estrategikoa.- Familiei laguntzeko zerbitzuak 66
5. ildo estrategikoa.- Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika 70
6. ildo estrategikoa.- Gizarte-sentsibilizazioa 74
7. ildo estrategikoa.- Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea 77
8. ildo estrategikoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea 78
9. ildo estrategikoa.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa 80

VII NEURRIETAN EZARRITAKO EBALUAZIO ADIERAZLEAK 83

VIII PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA 97

IX FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN AURREKONTUA 101

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak tinko eutsi nahi dio asmo bati; hain zuzen ere, politika publikoen artean, familia-politikari dagokion garrantzia emateko asmoari, eta are gehiago, Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundeen I. Planaren balantzea guztiz positiboa dela ikusi ostean. Orain, Familiei laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan hau aurkeztu du Jaurlaritzak, familiaren aldeko jardun eta tresna guztiak antolatu eta egituratzeko esparru orokor moduan, eta honako helburu honekin: multzo osoari koherentzia handiagoa emateko, dauden neurrien osagarri izango diren ekimen berritzaileak txertatzeko eta planaren indarraldian (2006-2010) aplikatuko direla bermatzeko helburuarekin.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuan esleitutako eginkizunei jarraiki, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak egin du II. plan hau. Plan honen bitartez, honako bi helburu hauek lortu nahi dira: alde batetik, aurreko etapan aplikatzen hasitako neurriak (seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriak, alegia) indartzea, zabaltzea eta horiei jarraipena ematea; eta bestetik, indarrean dagoen planean aurreikusi gabeko gastu-kontzeptuak estaltzeko laguntza berriak sartzea.

Dagokien eskumen-esparruan, bai Eusko Jaurlaritzak, baita Foru Aldundiek eta udalek ere, Familiei laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honetan parte hartzen dute modu aktiboan; baliabide programatiko berri honetan egindako hobekuntza, zabaltze eta berrikuntza guztiak aurreko etapan erdietsitako lorpenak sendotu eta egonkortzeko mesedegarri izango direlakoan jarduten dute horiek guztiek, eta aldi berean, euskal familia-politika Europako proposamen aurreratuenekin pixkanaka uztartuko dela bermatuta.

I. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Gizartearen funtsezko elementua da familia, gizarte-arloko eginkizun garrantzitsuak betetzen dituelako: hain zuzen ere, haurren kokapen eta identifikazio soziala, inoren laguntza behar duten senitartekoak zaintzea, kideen mantenua, senitarteko guztien gizarteratzea, euskarri afektibo eta emozionala, eta elkarri laguntza eta babesa ematea.

Gizarte industrial aurreratuetan —gurean ere bai— aldaketa handiak gertatu dira azken hamarkadetan, gizartean oro har, eta familian bereziki, egiturazko aldaketak eraginda. Gure familia-errealitatearen aldaketa hobeto ezagutu nahi badugu, eta familiaren barruan gertatzen ari diren prozesuak, eta prozesu horiek eragiten eta areagotzen dituzten faktoreak hobeto ulertu nahi baditugu, familia ezin dugu hartu gizarte-sistema itxitzat; izan ere, familia sistema irekia da, eta gizartean gertatzen diren aldaketek ere eragiten dute sistema horretan. Hori dela-eta, gizartea aldatzearekin batera aldatu da eta aldatzen da familia ere, eta denborak aurrera egin ahala, familia motak aldatu eta askotarikoak bihurtzen dira.

Bestalde, familia-sistema aztertzeko garaian, ez dugu ahaztu behar familia-sistema beste hainbat sistema baino askoz ere ahulagoa dela; esate baterako, sistema ekonomiko edo politikoa baino ahulagoa, zeren horiek nabarmen eragiten baitute familia-sisteman, eta etengabe aldatzen diren gizarte-zirkunstantzietara egokitzeko prozesuan murgiltzen dute, etengabe. Hori horrela izanik, familia babesteko neurriak erabaki eta abiarazi behar dituzte botere publikoek, familia osoaren eta kide guztien ongizatea sustatzen laguntzeko, baina betiere neutraltasun finena bilatuta eta bizikidetza-eredu guztiak errespetatuta.

Aldaketa handi horiek familia-ereduetan, beren portaera-ereduetan nahiz eginkizunetan eragiten dute, eta **hiru faktore motarekin** loturik daude: egungo joera demografikoekin, merkatuaren bilakaerarekin, eta balio, itxaropen, helburu eta bizi-proiektuen konplexu kulturalarekin.

1.1. Joera demografikoak

Gaur egun, bi joera demografiko nagusi daude: **jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikien iraunkortasuna, eta biztanleriaren zahartze-prozesu azkarra**, baina familia ez da horren erantzule. Familia hartuko bagenu egoera horren erantzuletzat, diagnostiko okerra egingo genuke, eta horren ondorioz, familiaren eta demografiaren arloko politika ezegokiak diseinatuko genituzke.

Jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikien iraunkortasuna

60ko hamarkadaren amaieran, ugaltzeko adinean zegoen emakume bakoitzeko haur kopurua

2,5 zen gure Autonomia Erkidegoan; 1995. urtean, aldiz, emakume bakoitzeko haur bat baino gutxiago zen. Azken lau urteotan jaiotza-tasa zertxobait igo den arren, seme-alaben batez bestekoa ez da emakume bakoitzeko haur batera ere heldu. Horretaz gain, Eustat-ek emandako azken datuen arabera, gorakadatxo hori moteltzen ari omen da, 2005eko hirugarren hiruhilekoan jaiotza kopurua %3 jaitsi baitzen, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

Ikerketek diotenez, gazteek modu positiboan balioesten dute familia eta haien itxaropen nagusietakoak dira bikote bat osatu eta familia ekartzea. Hortaz, koherentea da honako ondorio hau ateratzea: euskal gazteriak ez du izaten nahi adina haur. Ondorio hori berresten duten datuak badaude: Sailak 2004an egindako *Familiari buruzko Inkesta*ren arabera, ezkonberrien 15.000 bikote kexu zen ezin zuelako nahi adina haur izan, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai lan-arrazoiengatik.

Azken buruan, euskal gazte gehienek familia osatu eta bi seme-alaba izan nahi badituzte baina ez badute lortzen, edo gero eta beranduago lortzen badute, portaera hori eragiten duten arrazoiak, eragozpenak eta zailtasunak aztertu behar dira.

Ezkontzak murriztea eta atzeratzea

Ezkontzekin gertatzen ari dena lagungarri izan daiteke aurreko hori guztia ulertzeko. Hain justu 1976. urtean hasi zen jaisten ezkontza-tasa, jaiotza gehien izan ziren urtean. 1975ean, 1.000 biztanle bakoitzeko 8,4 ezkontza izan ziren, eta 1981. urterako, mila biztanle bakoitzeko 5eraino jaitsi zen, 1985ean mailarik txikienera (4,4 mila biztanle bakoitzeko) helduta. Harrezkero, eta 2003. urtera bitarte, mila biztanle bakoitzeko ezkontza-tasa 4,4 eta 5,1 bitartekoa izan da.

Ezkontza kopurua murriztearekin batera, ezkontzeko adina handitu egin da, pixkanaka. 1986. urtean ezkondu ziren gizonezkoen batez besteko adina 28,5 urte ziren; 2004ko datuen arabera, batez beste 35,5 urte zituzten. Emakumeen kasuan, 1986ko batez besteko adina 25,8 urte ziren, eta 2004an 31,4 urte.

Amatasuna atzeratzea

Ezkontzak atzeratzearen ondorioz, amatasuna geroratu egin da; izan ere, esan gabe doa oraindik ere jaiotza gehienak ezkondu ostean edo formalki ezkondutako bikoteek osatutako familietan gertatzen direla. Baina agian zuzenagoa da honako hau esatea: ezkontzak atzeratzearekin batera, amatasuna ere atzeratu da. Gaur egun, lehenengo haurra izaten duten

emakumeen batez besteko adina 31 urtetik gorakoa da. Hala ere, ezkontzen atzerapenak soilik ez du eragin amatasuna geroratzea, zeren **guraso ez diren** familien —seme-alabarik gabeko bikote gazteak— kopurua ere handitzen ari baita (2001ean 47.741 ziren, 5 urte lehenago 39.307 izanik).

Ugalkortasuna atzeratze horrek bikote antzuen kopurua areagotzea dakar; izan ere, jakin badakigu adinean gora egitearekin batera ugalkortasuna murriztu egiten dela, eta horren ondorioz, gero eta bikote gehiagok jotzen du haurrak adoptatzera.

Familia ugariak murriztea

Aipatu ditugun joera demografikoak, ezkontzen atzerapena eta jaiotza-tasaren jaitsiera gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko faktoreekin uztartuta, familia ugarien kopuruak behera egin du. Egia esan, urtean 1.000 bat familia ugari berri sortzen dira, baina haurrak adin-nagusitasunera heldu edo emantzipatu direlako familia ugari izateari uzten dioten familien kopurua handiagoa denez, kolektiboa txikiagoa da urtetik urtera. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 20.000 familia pasatxo sartzen dira kategoria horretan.

Biztanleria zahartzea

Jaiotza-tasa txikiari eutsi eta bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz, biztanleria zahartzen ari da, etengabe. 1975. urtean 65 urtetik gorako biztanleak %8,26 ziren, baina 2001ean %18 izatera heldu ziren. Eta antza, zahartze-prozesu horrek aurrera egingo du datozen urteotan. Eustaten datuei jarraiki, 2001. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %3,5ek 80 urte baino gehiago zituen, Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta, soilik 2 hamarren txikiagoa izanik. Dena den, 60 urtetik gorakoen proportzioa puntu eta erdi handiagoa dugu Europar Batasunean baino; beraz, ziur esan dezakegu laster batean Europako proportzioaren pareko mailara heldu eta gainditu ere egin dezakegula 80 urtetik gorakoei dagokienez.

Biztanleria zahartzen ari denez, gaitasuna edo autonomia murriztearekin lotutako mendetasun-tasa areagotzen ari da; batik bat, 80 urtetik gora gertatzen dira horrelako egoerak. Hori horrela izanik, lehen aipatu dugun 2004ko Familiei buruzko Inkestaren arabera, 80 urtetik gorakoen %11k etengabeko arreta behar du, eta 65-79 urte bitartekoetan, soilik %2k.

Bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz, ezkon-bizitza luzatu eta **guraso izandako** familien kopurua handitu egin da, bestela esateko, seme-alabak emantzipatu eta etxetik kanpo dituzten heldu-bikoteen kopurua; baita **lagun bakarreko** familien kopurua ere, eta lagun

bakar hori, kasu askotan, 70 urtetik gorako emakume alargun edo banandua izaten da. 2001. urtean, guraso izandako familiak 90.000tik gora ziren, 1996an baino 15.000 familia gehiago izanik. Bikote horietako askok urte batzuk lasai-lasai bizitzeko aukera izaten dute, seme-alabak hazi eta heztearekin lotutako erantzukizunik gabe; baina batzuetan, bilobak zaintzeko zereginak beren gain hartu eta lan-gainkarga izaten dute, eta horretaz gain, gerta daiteke beren senitarteko zaharragoren bat —gaixo dagoena eta inoren laguntza behar duena— ere zaindu behar izatea. Guraso izandako familietako kideek nahiz bakarrik diren adinekoek bakardadearen arriskua eta mehatxua pairatzen dute, beraiek ere inoren laguntza behar izateko arriskua eta mehatxua, eta epe laburrean, beren seme-alaben edo senitartekoen eta erakundeen arreta-zerbitzuen eskatzaile izatekoa.

1.2. Lan-merkatuaren eta etxebizitzaren egoerak

Bigarren faktore multzoa sistema ekonomikoarekin —bere osotasunean— loturik dago, baina laburtzearren, sinplifikatu edo murriztu egingo ditugu faktoreak. Dirudienez, faktore horietako bik eragin handiagoa eta zuzenagoa dute familian: lan-baldintza txarrek eta etxebizitzaren arazoak, gutxi eta garesti baitago.

Aditu guztien esanetan, bi faktore horiek dira goian azaldu ditugun joera demografikoen eragile, eta batez ere, eta zuzen-zuzenean, jaiotza- eta ugalkortasun-tasaren gainbeheraren eta ezkontzak atzeratzearen eragile.

Badira beste hainbat alderdi ere, gazteak emantzipatzeko eta etorkizuneko proiektuak gauzatzeko —esaterako, familia bat sortzeko— eragozpen (batzuetan gaindiezin) izaten direnak, hala nola aldi baterako kontratuak, gaizki ordaindutako enpleguak, jasotako prestakuntzarekin bat ez datozen lanpostuak, kaleratzeko edo langabezian uzteko mehatxuak, baita etxebizitzaren prezio garestia ere.

Seme-alabak berandu emantzipatzea

EAEn, emantzipatzeko batez besteko adina asko atzeratu da azken hamarkadetan. Duela hiru hamarkada, hirurogeita hamarreko hamarkadan, euskal gazteek batez beste 23 urterekin alde egiten zuten gurasoen etxetik. Laurogeiko hamarkadan, gizartearen eta ekonomiaren egoera larriagoa izanik, emantzipatzeko batez besteko adina 24 urtera atzeratu zen emakumeen artean, eta 25era gizonengan. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaierarako, atzerapena askoz ere handiagoa zen: gizonak 30 urte pasatxo arte egoten ziren gurasoen etxean, eta emakumeak gutxienez 28 urte arte.

Gazteak emantzipatzeko adina atzeratzearen kontua Estatu osoan sumatu da. Horrela bada, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren datuei erreparatuta, XX. mendearen azken laurdenean, 20 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen proportzioa %44tik 33ra jaitsi zen. 1976. eta 1986. urteen artean, gazteen emantzipazioa atzeratzea langabezia-tasen bilakaerarekin loturik egon zen; 1986tik aurrera, gainera, lan-eremuaren barruan, aldi baterako lana eta lan-baldintza txarrak agertu ziren, gazteak emantzipatzeko batez besteko adina atzeratu zela.

Honako taula honetan ikus dezakegunez, Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeetan emantzipatzen dira gazteak azkarren: Danimarkan, Finlandian, Holandan eta Frantzian bizi dira gazte gehien bakarrik edo gazteen etxeetan; eta herrialde horietan, baita Erresuma Batuan eta Alemanian ere, gurasoekin bizi diren 20-24 urte bitarteko gazteen proportzioa txikia da. Bestalde, 30 urte ingurura gerturatu ahala, Europar Batasuneko gazte gehienek familiaren etxetik kanpo bizitzeko aukera handiak dituzte, batik bat Finlandian, Danimarkan eta Holandan, baina joera hori ez da hain nabarmena Europako hegoaldeko zenbait herrialdetan: Grezian, Espainian, Italian eta Portugalen, esaterako.

Gazteen emantzipazioa EBn, adin-taldeen arabera														
	B	D	DK	EL	E	F	IRL	I	NL	A	P	FIN	UK	EU15
20-24 urte bitarteko gizonak														
Bakarrik bizi dira	2	7	29	10	0	11	2	2	30	8	1	25	11	13
16-34 urte bitarteko norbaitekin bizi dira	11	5	11	2	3	8	4	1	14	7	4	17	21	9
Gurasoekin edo beste norbaitekin bizi dira	87	88	60	88	96	81	95	97	55	85	95	59	68	78
20-24 urte bitarteko emakumeak														
Bakarrik bizi dira	2	23	40	4	2	13	11	1	24	14	1	31	14	16
16-34 urte bitarteko norbaitekin bizi dira	15	13	26	13	6	17	8	4	33	21	9	39	35	19
Gurasoekin edo beste norbaitekin bizi dira	83	64	34	84	92	70	81	95	43	65	91	30	51	65
25-29 urte bitarteko gizonak														
Bakarrik bizi dira	13	24	36	5	4	16	13	5	28	18	4	30	10	16
16-39 urte bitarteko norbaitekin bizi dira	37	30	61	18	16	43	22	12	57	33	17	58	59	40
Gurasoekin edo beste norbaitekin bizi dira	50	46	3	77	80	42	65	84	15	49	79	13	31	43
25-29 urte bitarteko emakumeak														
Bakarrik bizi dira	11	24	20	5	5	16	8	5	21	20	4	29	21	15
16-39 urte bitarteko norbaitekin bizi dira	65	50	76	43	32	53	34	34	75	48	27	66	65	55
Gurasoekin edo beste norbaitekin bizi dira	24	26	4	52	63	31	58	61	4	32	69	5	15	31

Iturria: *"The life of women and men in Europe: A statistical portrait, 2002"*. Eurostat.
B (Belgika) – D (Alemania) – DK (Danimarka) – EL (Grezia) – E (Espainia) – F (Frantzia) – IRL (Irlanda) – I (Italia) – NL (Holanda) – A (Austria) – P (Portugal) – FIN (Finlandia) – UK (Erresuma Batua)

Europako herrialdeetako gazteen jokabidea hain ezberdina izatearen arrazoia gizartearen eta ekonomiaren arloko egoera dela esan ohi da, eta adibide gisa honako hau aipatzen da, bereziki: Eskandinaviako herrialdeetan, esaterako, gazteek Estatuaren prestazio ekonomikoak jasotzen dituzte; Mediterraneo inguruko herrialdeetan, aldiz, emantzipatzeko laguntzak txikiagoak dira, eta familia nuklearra da gazteei laguntza eta euskarri ekonomikoa ematen dien elementu garrantzitsuena.

Seme-alabak berandu emantzipatzen dira, eta gurasoen etxean egoten dira 30 urtetik gora bete arte; gehienetan, bizitza modu autonomoan antolatzeko independentzia ekonomikorik ez dutelako gertatzen da hori, eta horren ondorioz, familiaren erantzukizuna izaten da haiei ostatua eta mantenua ematea, zentzuzko epeaz gain bada ere.

2001eko Erroldaren arabera, gure Erkidegoan 140.000 familia baino ziren guraso bat edo bi buru izanik, inoren laguntza behar ez zuten seme-alabekin bizi zirenak, hau da,

emantzipatzeko adineko seme-alabekin; 5 urte lehenagoko datuekin alderatuta, zenbateko hori bikoiztu egin zen (64.343 familia).

Berriki aipatu ditugun eragozpen objektiboak nahiz kulturaren arloko faktoreak tarteko, seme-alabak berandu emantzipatzearen eraginez, gure eremuko familia taldea Europar Batasuneko handienetakoa da: EAEn, 3,36 lagunek osatzen dute familia taldea, 2004ko Familiei buruzko Inkestako datuen arabera. Grafikoan ikus daitekeenez, Estatuko batez bestekoa baino zertxobait beherago dago EAE, baina Europar Batasuneko herrialde gehienen oso gainetik.

Familien batez besteko tamaina



Iturria: Berthour, R.; Lacovou, M.: *Diverse Europe: mapping patterns of social change across the EU*, Colchester, University of Essex, 2004.

1.3. Kultura-sistema

Familia-sisteman eragiten ari den hirugarren faktore multzoa balioekin, itxaropenekin eta helburuekin loturik dago. Bizi-proiektuak definitzeko eta helburuak ezartzeko garaian, balioak eta itxaropenak dira gizakia bideratzen dutenak. Hemen ez dugu horren inguruko hausnarketa sakonik egingo, baina ezin dugu aipatu gabe utzi honako hau: gurea bezain

askotarikoa eta plurala den gizarte baten balio-sistemarekin lotutako problematika konplexua. Badira zenbait gai alde batera utzi ezinezkoak direnak, eta horien inguruan hausnarketa egitea merezi du; esate baterako, nagusi den balio-sistemaren osaera, balio-hierarkiaren aldaketak, akulturazioaren edo norbere kultura galtzearen ondorioak (etorkinen kolektiboaren kasuan, konparazio batera), edo balio-gatazkak, batzuetan kontrajarriak eta bestetan bateratzeko zailak.

Familia-sistemarekin lotutako balioen aldaketa

Ez gara hasiko orain balioen edo balioen inguruan izandako aldaketen katalogoa egiten, baina familia-sisteman eta kideengan nabarmen eragiten ari diren prozesuak azaltzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait balio zerrendatzeari egoki iritzi diogu.

Gizartearen sekularizazio-prozesua; erlijioarekin lotutako erakunde eta elkarteek, eta zenbait arau moral tradizionalek aginpidea galdu dute: besteak beste, ezkontza eta dibortzioa arautzen dutenak, eta ugalkortasunaren kontrolarekin loturikoak.

Sexualitatearen autonomia; ugalketa-eginkizunetik bereizi da sexualitatea, eta bikotearen maitasun-harremana sustatzeko eta adierazpenerako bide izaki, ez du beste justifikaziorik behar.

Jarrera toleranteagoak garatzea; baita errespetuzko jarrerak ere, ohikoak ez diren aukera pertsonalen aurrean.

Norberaren eta lanbidearen erabateko garapena lortzeko itxaropena; batik bat, emakumeen artean, zeren ohiko familiak eta familia horretan emakumeek betetzen zuten egitekoak aukera hori mugatzen baitzien, kasu askotan.

Aukera-berdintasuna lortzeko itxaropena bikotearen bi kideentzat, sexuak eragindako diskriminazioa gaitzetsita.

Bikotekideen artean berdintasun-harremana lortzeko itxaropena, bikotekidearekiko edo seme-alabekiko jarrera autoritarioak eta inposatzaileak gaitzetsita, baita indarkeria edo tratu txarrak ere.

Inoren laguntza behar duten kideekiko elkartasuna eta laguntza, familian.

Jarrera hedonista zilegiztatzea.

Familia-sistemaren aldaketak

Zerrendatutako balio edo balio-aldaketa horietako batzuen eraginez, **familia bizitzeko modu eta proiektu berriak** sortu eta onartu dira: lotura formal edo aitortuaren bidez eta akordio informalaren bidez lotutako bikoteak, bikote homogamoak eta heterogamoak, ugalkortasuna helburu duten bikoteak, eta ugalkortasunari uko egiten diotenak.

Aldiz, beste aldaketa batzuk **bikote-harremanarekin** loturik daude; gure gizartean, harreman hori **demokratikoa eta berdintasunezkoa** soilik izan daiteke, eta honako hauetan oinarritua: norberaren askatasunaren eta autonomiaren errespetuan, eta familia bideratzeko garaian, seme-alabak hazi eta hezteko garaian, eta etxeko lanak egiteko garaian, bi bikotekideek erantzunkidetasuna beren gain hartzean.

Hirugarren kapitulua honako honi buruzkoa da: **norberaren erabateko garapena lortzeko emakumeen itxaropenari** buruzkoa, hezkuntzarako sarbidearen bitartez, lan-merkatuan eta produkzio-sisteman sartuta, eta lanbide-jarduera bat eta karrera profesional bat garatuta. Emakumea etxeko eremutik irten eta enpresa-munduan sartu denez, lehen ez zuen autonomia-maila jakin bat lortu du, eta horrek eragin handia izan du familia-harremanetan, demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak bihurtu behar izan baitute.

Bestalde, emakumea laneko eta lanbideko bizitzan sartu da; horri esker, **lan-arloko bizitza eta familia-bizitza bateragarri egin behar direla** agerian geratu da, baita honako hau lortzeko zailtasunak ere: lanbide-jarduera etxeko lanekin, seme-alaben zaintzarekin eta ezinduei edo inoren laguntza behar dutenei arreta ematearekin uztartzea. Halaber, argi geratu da etxeko lanen eta inoren laguntza behar dutenen zaintzaren eremuan, egiazko erantzunkidetasuna hartzeari gogor egiten diotela aitek eta gizonek, oro har, eta enpresa-kultura ere oso mantso egokitu dela langileen familia-premietara, oso zerbitzu soziokomunitario gutxi baitaude familiei zeregin horien zama arintzeko.

Lan-gainkarga

Norberaren balio-sistemari jarraiki, bi betebeharrak bateragarri egin nahi dituztenek lan-gainkarga jasan ezina pairatu behar izaten dute, batzuetan. Hainbat datu esanguratsu emango ditugu, gero eta ohikoago bihurtzen ari den errealitate horren adierazgarri: gure Autonomia Erkidegoko 50.000 bat etxetan, lan-gainkarga arazotzat hartzen da, nahiz eta esan daitekeen familia horietako emakume eta amei soilik eragiten diela, etxeko lanetan eta laguntza behar duten senitarteko kalteberak zaintzen gizonen inplikazioa ez baita, oraindik, oso handia, ezta seme-alaba gazte eta nerabeena ere.

Inoren laguntza behar dutenen eskaerengatik

Lan-gainkarga mota hori bereziki familia jakin batzuetan gertatzen da; hain zuzen ere, inoren laguntza behar duen kideren bat —normalean, adinekoa— edo 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten familietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 80.000 etxetan bada eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko zailtasunak dituen kiderik —gaixotasun edo ezintasunen bat duelako edo oso zaharra delako—, besteren arreta eta zaintza behar duenik. 80.000 familia horietako 32.000tan, egunean gutxienez 6 orduko arreta eskatzen dute, eta ia 18.000tan etengabekoa.

Bestalde, beste batzuk kexu dira ezin dituztelako adineko gurasoak etxean zaindu lana dela-eta; EAEko familien %2,4 dira, 18.000 familia, alegia. Jende askok pentsatzen du adineko senitartekoak zaintzeko betebeharra duela, edo besterik gabe, zaindu egin nahi ditu, baina eragozpen objektibo asko izaten dituzte, eta argi eta garbi ikusten da kasu horietan, jende horrek izaten duen balio-gatazka edo -tentsioa.

Gai horretan ere, alde nabarmena dago Europako hegoaldeko herrialdeen eta iparralde nahiz erdialdeko herrialdeen jokabidearen artean. Grafiko honetan oso ongi jasotzen da alde hori; seme-alabekin bizi diren eta haiek zaintzen dituzten adinekoen proportzioa aldatu egiten dela ikus daiteke, sexuaren eta adinaren arabera.

Seme-alabekin bizi diren eta seme-alabek zaintzen dituzten adinekoen proportzioa



Iturria: Berthour, R.; Lacovou, M.: *Diverse Europe: mapping patterns of social change across the EU*, Colchester, University of Essex, 2004.

Adinean aurrera egin ahala proportzioa handitu egiten dela ikus daiteke lehenik, herrialde mota edo sexua edozein izanik ere. Bigarrenik, Europako hegoaldeko herrialdeen eta iparraldeko edo erdialdeko herrialdeen artean dagoen alde nabarmena egiaztatzen da, bai emakumeen bai gizonen kasuan. Hirugarrenik, honako hau ikus daiteke: adin berean, seme-alabekin bizi eta seme-alabek zaintzen dituzten gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena baino, Europako hegoaldeko herrialdeetan.

Adingabeko seme-alaben eskaerengatik

Gure lurraldean, 13 urtetik beherako seme-alabak dituzten 120.000 familia daude, eta horietatik 47.000 familiatan 3 urtetik beherako seme edo alaba bat dago. Erdiak dioenez, haur txikienak zaintzeko zailtasunak ditu, etxetik kanpoko lanarekin uztartu behar baitu. Horretarako, aitona-amonen laguntza izaten da askotan; izan ere, 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien erdiak izaten du aitonen eta amonen laguntza, eta familia horien laurden baten kasuan, laguntza hori egonkorra eta ohikoa izaten da, ordutegi eta zeregin jakin batzuekin.

Europa osoan gertatzen da egoera hori, baina zalantzarik gabe, hegoaldeko herrialdeetan nabarmenagoa da, eta gehienbat emakumeei eragiten die, honako grafiko honetan ikus daitekeenez.

Seme-alabekin bizi diren eta bilobak zaintzen dituzten dinekoen proportzioa



Iturria: Berthour, R.; Lacovou, M.: *Diverse Europe: mapping patterns of social change across the EU*, Colchester, University of Essex, 2004.

Bestalde, 3 urtetik beherakoentzako ikastetxe-sarea nabarmen garatu den arren, oraindik ere 5.000 baino gehiago dira haurtzaindegian edo haur-eskolan tokirik ez izateagatik ondorioak pairatzen dituzten familiak; hala ere, kalkuluen arabera, 14.000 toki berri eskaini beharko lirateke etorkizun hurbilean izan daitekeen egiazko eskaerari aurre egiteko.

1.4. Familia-sisteman indarra hartzen ari diren fenomenoak

Aurreko hiru ataletan aipatu ditugu dagoeneko gertatzen ari diren aldaketa-prozesuak, eta horiek nola eragiten dioten familia-sistemari, baina hala ere, ez dugu uste sobera dagoenik prozesu horietako batzuk laburbiltzea, familiari laguntzeko sistemarekin eta erakundeen arteko planarekin lotzeko.

Ezkontza-instituzioaren aldaketak

Indarra hartzen ari den lehen fenomenotzat aldaketak aipa ditzakegu, ezkontza-instituzioan gertatzen ari diren aldaketak, alegia; multzo horretan sartzen dira bai bikote-harremanak formalizatzearekin eta arautzearekin lotutako alderdi guztiak, bai bikotea nork osa dezakeen, baita bikotekideen elkarrekiko eskubideen eta betebeharren inguruko guztia ere. Duela gutxi arte zokoratuta zeuden bikote mota asko gaur egun onartzen dira: bikote homogamoak, bi dibortziatuk osatutako bikotea, izatezko bikoteak edo modu informalean loturikoak. Dena dela, zenbait herritarrek ez du gustuko bizikidetza-errealitate berri horiek legitimatzea.

Eta bizikidetza-errealitate ezberdinak aipatu ditugunez, ezin alde batera utzi guraso bakarreko familiak; guraso bakarra izateak dakartzan arazo espezifikoak pairatzeaz gain, bi gurasoko familiei eragiten dieten arazoen ondorioak larriagotu egiten zaizkie.

Baina arazoak identifikatze aldera, guraso bakar izateko hainbat mota bereizi behar dira. Normalean, aita edo ama bakarra eta seme eta/edo alaba bat edo gehiago —adingabea/k edo gurasoarekiko mendetasun-egoeran dagoena/daudenak— dituen familia hartzen da gurasobakarreko familiatzat. Definizio horri jarraiki, 2001ean 40.000 familia gurasobakar zeuden EAEn. Baina kasu gehienetan, bikotea hautsi zelako edo bikotekideren bat hil zelako geratzen zen guraso bakarra, eta 5.000 bat familiaren kasuan, soilik, esan zitekeen jatorrizko familia gurasobakarra zela, ama ezkongabeak eta seme-alabek osatuta.

Beraz, aitak edo amak eta seme-alabek osatutako lau familia mota bereiz ditzakegu, eta komeni da, gainera, bereiztea, mota bakoitzak arazo espezifikoak baititu:

- Mendeko seme-alabarik ez dagoen familia, non ama edo aita alarguna edo dibortziatua izan daitekeen (2001. urtean 47.180 familia).
- Mendeko seme-alabak dituzten familiak, non ama edo aita alarguna den, bikotekidearen heriotzaren ondorioz (10.831 familia, eta kasuen %82n, ama zen buru).

- Mendeko seme-alabak dituzten familiak, non aita edo ama banandua edo dibortziatua dagoen (24.048 familia, eta kasuen %80n, ama zen buru).
- Ama ezkongabeak eta mendeko seme-alabek osatutako familiak.

Lehenengo kasuan ez dute arazo espezifikorik izaten, baina gainerako hiru familia motetan arazo espezifikoak izateko arriskua dute guraso bakarra izatearen ondorioz, eta ziurrenik, baliabide ekonomiko gutxiago izateagatik larriagotu egiten da egoera.

Familia-instituzioaren aldaketak

Bigarrenik, familia eta familiako kideen arteko rolak eta itxaropenak osatzeko garaian, emakumea laneko eta lanbide-arloko bizitzan sartzeko fenomeno konplexuak hartu duen garrantzia aipatu behar dugu. Hain justu, lehen argi eta garbi bereizten zen aita/ama eta senar/emazte paperen arteko muga, baita eginkizunak eta zereginak ere, baina muga hori lausotu eta familia-eredu berrirantz goaz, non berdintasuna proposatzen den honako hauetan: familiaren zuzendaritza eta agintaritza gauzatzeko garaian, seme-alaben zaintzari eta heziketari dagokion erantzunkidetasunean, inoren laguntza behar dutenei arreta eman eta etxeko lanak egiteko garaian, eta norberaren eta lanbidearen garapenean bikotekide bien aukera berdintasunean.

Familia-bizitza lan- eta lanbide-arloko bizitzarekin bateragarri egitea

Hirugarren fenomenoa honako hau da: seme-alabak dituzten bikoteek, ama ezkongabeek edo inoren laguntza behar duen kideren bat edo ezinduren bat haien kargura duten familiek lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko garaian izan ohi dituzten arazoak. Fenomeno hori ez da orain indarra hartzen ari, lehen ere hortxe baitzeuden arazo horiek, baina gaur egun, arazo horiek aditzera eman dira edo horietaz jabetu gara.

Bukatzeko, ezin dugu alde batera utzi familiaren baitan dagoen gatazka; hain zuzen ere, gatazka horiek hainbat arrazoi edo jatorri eta larritasun-maila izan ditzakete, familia mota guztiei eragin diezaiekete, eta bizikidetza-unitatearen motaren arabera eta familia-zikloaren zein etapatan dagoen arabera, forma bat edo beste har dezakete: bikotekideen arteko desadostasunak edo eztabaidak, belaunaldien arteko gatazkak, anaia-arreben arteko tira-birak, etxeko indarkeria, eta abar.

Baina familiaren baitan gatazka izatea ez da fenomeno berria, eta ezin dugu esan ziurtasun osoz azken urteotan gora egin duenik ere. Baina honako hau bai da berria: gatazka horretaz

eta horri aurre egiteko moduaz jabetu izana, baita gatazka mota jakinekiko —tratu txarrak, indarkeria fisikoa edo bortxaketak— sentsibilizazio eta gaitzespen handiagoa ere.

1.5. Erakundeen erantzuna

Joera horien guztien eraginez, azken hamarkadetan, Europako herrialdeek askotariko neurriak hartu behar izan dituzte premia berriei erantzuten saiatzeko.

Eskumen- eta lege-esparrua

EAEn, Autonomia Estatutuaren 10-12. artikuluan esleitutako gizarte-asistentziaren inguruko eskumenen barnean hartuta, familiei laguntza edo babesa emateko eremura mugatzen da familia-laguntza. Eskumen-esparruak ezartzen dituen mugak errespetatuta, euskal erakundeek familia-errealitate aldakor eta itxura anitzekoari aurre egin izan diote, hainbat ekimen abiarazita.

Alde batetik, azken bi hamarkadetan, Foru Aldundiek eta Udalek askotariko neurri, programa eta zerbitzuak jarri dituzte martxan, honako araudi hauetan oro har xedaturikoa betez: azaroaren 25eko 27/1983 Legean (Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko jardun-erakundeen arteko harremanei buruzkoa) xedatutako erantzukizunak, eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak gizarte-zerbitzuen inguruan udalerriei ezarritako agindua; eta, modu espezifikoan, gizarte-zerbitzuak arautzen dituzten legeetan eta bereziki Gizarte Zerbitzuei buruz indarrean dagoen urriaren 18ko 5/1996 Legean esleitutako eskumenak betez.

Berrikiago, familia-politika arautzen duen esparruak aurrerapauso garrantzitsua egin du bi lege hauek onartuta: alde batetik, Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, zeinaren helburu nagusia honako hau den, Zioen Adierazpenean zehazten denari jarraiki: *"Lege honek egungo legedian bizirik dirauten bereizkeria guztiak gainditzeko bidean aurrera egin eta horretan lagundu nahi du, familiako kideen izaera edo gorabehera pertsonal edo soziala bada bereizkeriaren oinarri, gure gizarte-inguruaren kulturan onartutako afektibitate- eta sexualitate-adierazpide ugarien arabera ulertuta familia; eta horrekin batera Konstituzioan bereizkeriaren aurka, nortasuna askatasunez garatzearen alde eta familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren alde aipatzen diren printzipioen arau bidezko garapena hobetu nahi da, araudia gizarteak historiako une bakoitzean bizi duen egoerara egokituta"*; eta bestetik, otsailaren 18 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

I. Familia Planaren laguntza-sistema

Familiari laguntzeari dagokionez, 2002-2005 aldian indarrean egon zen Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundeen Planarekin ekin zitzaion familiari laguntzeko sistema unibertsal, integral eta koordinatua lortzeko bideari. Plan horren helburu orokorra honako hau zen: ekonomia-, gizarte- eta lan-alorreko oztopoak kentzea, familiek eurek erabakitzen duten seme-alaben kopurua izan dezaten.

Helburu hori lortzeko, hainbat neurri abiarazi ziren; hala nola sentsibilizazioko neurriak, familiaren kontura dauden seme-alabengatiko laguntza ekonomiko zuzenak eta lan-arloko legedian aurreikusitako eszedentzialdiekin edo lanaldi-murrizketekin lotutako bateratze-neurriak; baina aurretik baziren beste hainbat neurri ere —zerga-kenkariak, esaterako— hartzen zituen barnean, eta haur-eskolen sarearen garapenari bultzada ematen zion, bikoteentzat seme-alaben heziketak eta mantenuak dakarren zama ekonomikoa arintzeko asmoz, eta batez ere, lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko eta uztartzeko asmoz.

Plan horren indarraldia amaitutakoan, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuan lortutako emaitzak oinarri hartuta, Plan berria abiaraztea ezinbestekoa da, egindako lorpenak sendotze aldera eta abiarazitako prozesuan aurrera egite aldera; zalantzarik gabe, prozesu hori indarberritu egingo litzateke laguntza behar dutenei arreta emateko esparruan garatzen diren ekimenen bitartez, hala nola Mendekoei arreta emateko Erakundearteko Plana osatzeko 2005eko ekainaren 27ko Jaurlaritzaren akordioaren bitartez.

Familiei laguntzeko II. Planaren erantzuna

Familiei laguntzeko II. Plan honen indarraldia 2006. eta 2010. urte bitartekoa izango da, eta egoeraren diagnostikoan aditzera emandako fenomeno hasiberriei aurre egitea du xede, aurreko Planean izandako lorpenak sendotzeko ahalegina eginda, betiere dagoeneko badiren neurriak eta zerbitzuak hobetuz, eta familiei laguntzeko programa berriak abiarazita.

Sortzen ari diren bizikidetza-errealitate berriak aintzat hartuta, familia-aniztasuna errespetatzeko printzipioan oinarrituko da Plana, familia motak eragindako inolako diskriminaziorik izatea saihestuz, eta lehenengo helburutzat honako hau proposatu da: familia mota guztien eta haien seme-alaben eskubideak sustatzea eta babestea. Printzipio eta helburu horiei jarraiki, horiek guztiek eskubide berdinak izateko ahalegina egingo dugu, guztiek ere laguntza ekonomikoetarako, zerga-neurrietarako eta zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten, aukera-berdintasunean. Halaber, familia ugarientzat eta guraso bakarreko

familientzat konpentsazioko neurriak hartzeari ere bultzada emango zaio, haien ezaugarri bereziei eta premia-mailari erreparatuta.

Bizikidetza-lotura mota ugari dagoela ulertuta, Jaurlaritzak jakin badaki lotura horiek guztiek harreman-eredu jakin bat izan behar dutela oinarri; hain zuzen ere, honako ezaugarri hauek dituen eredua: kideen autonomia eta garapena, berdintasuna eskubideei eta betebeharrei dagokienez, eta erantzunkidetasuna seme-alabak hazi eta hezteko garaian, inoren laguntza behar dutenei arreta emateko garaian, eta etxeko lanak egiteko garaian. Horregatik, familia-harremanen eredu hori indartzeko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditu, baita prozesuan erdietsitako lorpenen berri izateko azterlanak ere.

II. Plan hau aurrekoaren mendekoa da lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteari dagokionez, eta ebaluazioaren emaitzak eta egoeraren diagnostikoa kontuan izanik, abiarazitako bideari eusteko asmoa du, lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko neurri lagungarri berriak martxan jarrita.

Bateratze-politikarik onena honako hau da: familiari laguntzeko zerbitzu-sistema bat sortzea oinarri duena, adingabeko seme-alabak eta autonomia-maila txikia edo ezintasun-maila handia dutenak zaintzeko zeregina —denbora eta arreta asko eskatzen duen zeregina— arindu edo leuntzen duena. Hari berari jarraiki, Hezkuntza Sailak haur-eskolen sarea garatzeari eutsiko dio, 2 urtetik beherako haurren estaldura-tasa areagotzearren. Eta helburu berari helduta, baina kasu horretan, mendekoak edo ezinduak direnak zaintzen dituzten senitartekoen zama arintzeko asmoz, Foru Aldundiek eta Udalek adinekoei eta ezinduei arreta emateko zerbitzuak garatu eta hobetzen jarraituko dute, haien eskumen-eremuan.

Zerbitzu horien osagarri, 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko laguntza-programei eutsiko die Eusko Jaurlaritzak, langile autonomoei ere zabalduta, eta ezinduak edo mendekoak zaintzeagatiko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko antzeko programa bat abiaraziko du. Bestalde, haur-eskoletan tokirik gabe geratu diren 2 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeko programa berri bat sortuko da.

Azkenik, familiaren baitako gatazkari dagokionez, Jaurlaritzaren ustez horri aurre egiteko modurik hoberena prebentzioko ikuspegia da, gatazka-egoerak konpontzeko trebetasunak eta estrategiak barnean hartuko dituen hezkuntza eta prestakuntza emanez.

Baina Plan honetan onartzen denez, administrazioaren eginkizuna da gatazkaren zenbait adierazpen aurreikusi eta konpontzeko premia, ohitura eta jokabide okerrak zuzenduta,

arazoak eta egoera gatazkatsuak konpontzeko orientazioa emanda, bikotekideen arteko bitartekotza-tresnak sortuta, seme-alaben bisitaldietarako elkarguneak bilatuta, eta etxeko indarkeriaren biktimei laguntzeko eta erasotzaileengandik urruntzeko bitartekoak ezarrita.

Ildo beretik, II. Plan honetan hainbat arau eta baliabide txertatu eta sendotzeko ahalegina egingo da, Autonomia Erkidego osoan modu orekatuan eta homogeneoan garatu behar diren arau eta baliabideak izanik. Arauei dagokienez, Jaurlaritzak konpromiso garrantzitsuak hartu eta Planean sartu ditu: Familia Bitartekotzaren legea, Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua, Bitartekotza eta Elkargune Zerbitzuak garatzea. Baliabideen eremuan, Familia Orientazio eta Terapia Zerbitzuek egungo familietan sortzen diren egoera problematiko edo gatazkatsuei erantzungo diete, betiere iraintzen ez duen erantzun normalizatua bilatuta, eta norberaren eta familiaren garapena sustatuta egoera gatazkatsuak saihesteko eta gainditzeko modurik egokientzat.

II. SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN LEHEN PLANAREN EMAITZAK ETA LORPENAK

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundeen I. Planaren ebaluazioaren emaitzak guztiz positiboak dira, zalantzarik gabe, bai oro har, baita planaren esparruan barne hartutako ekimen espezifiko gehienei dagokienez ere. Jarraian hainbat datu emango ditugu, izandako lorpen garrantzitsuenen adierazle.

Familia onuradunen kopurua eta estaldura-tasen bilakaera

Neurriak aplikatzen hasi ziren lehenengo urtetik, I. Planaren onuradun ziren pertsonen eta/edo familien kopurua hazi egin da etengabe. 2005. urtean, guztira 61.569 familia[1] izan ziren neurrien onuradun, 2002. urtearekiko %37,7ko hazkundea izanik.

Urtero neurrien onuradun izandako familia kopuruaren eta horien banaketaren bilakaera

Neurri mota	2002		2003		2004		2005		Hazkun. %-tan 2002/05
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs	%	
Bateratze-neurriak: langileentzako laguntzak	2.601	5,8	6.749	13	7.984	14,1	8.942	14,5	243,8
Bateratze-neurriak: Enpresentzako laguntzak	290	0,6	884	1,7	1.012	1,8	1.164	1,9	301,4
Familientzako laguntza ekonomiko zuzenak	12.265	27,4	12.883	24,7	13.409	23,7	13.963	22,7	13,8
Familiari laguntzeko zerbitzuak: Haur-eskolak[2]	25.542	57,1	27.118	52,1	29.115	51,4	32.000	52	25,3
Familiari laguntzeko zerbitzuak: laguntza ekonomikoak[3]	4.000	8,9	4.451	8,5	5.143	9,1	5.500	8,9	37,5
Guztira	**44.698**	**100**	**52.085**	**100**	**56.663**	**100**	**61.569**	**100**	**37,7**

[2] 2005. urteko zenbatekoa kalkulatzeko, 2005-06 ikasturtean eskolatutako ikasleak hartu dira.
[3] 2002. urteko zenbatekoa kalkulatzeko, 2002-03 ikasturtean emandako laguntzen kopurua hartu da, baina kopuru zehatzik ez dakigu. 2005eko zenbatekoa kalkulatzeko, 2005-06 ikasturterako gutxi gorabeherako kalkulua hartu da.

Haur-hezkuntzako zentroetako tokiak dira gehien erabiltzen diren prestazioak, baina Planaren indarraldian, neurri multzoaren gaineko garrantzi erlatiboa jaitsi egin da, pixkanaka, %57tik 52ra. Onuradun kopuruari begiratuta, bigarren neurria familientzako laguntza ekonomikoak dira, eta horien garrantzi erlatiboa ere murriztu egin da; aitzitik, hain ezagunak ez diren prestazioen proportzioa hazi egin da, neurri guztiekiko. Beraz, ikuspegi horretatik begiratuta,

[1] Zenbait familiak laguntza bat baino gehiago jaso ahal izan dutenez, esan gabe doa onuradun izan diren familia ezberdinen kopurua txikiagoa dela; hortaz, emandako laguntza kopurua aipatu beharko litzateke.

esan dezakegu neurrien dibertsifikazio-prozesua gertatu dela, eta horren ondorioz, zerbitzu eta prestazioen banaketa ere orekatuagoa dela.

Eskatzaile eta/edo erabiltzaile izan daitezkeenen kopuruari dagokionez, neurrien aplikazioa aztertuz gero, estaldura handiena jaiotzagatiko laguntza ekonomikoen esparrukoa dela ikus daiteke, laguntza hori unibertsala eta baldintzarik gabea baita. Horien atzetik haur-hezkuntzako zentroetako tokiak datoz, baina aipatu behar dugu tarteen arteko aldeak nabarmenak direla.

Neurrien estaldura-tasen bilakaera

Neurri mota	2002	2003	2004	2005
Bateratze-neurriak. Langileentzako laguntzak[1]	3,9	10,3	12,2	13,7
Bateratze-neurriak. Enpresentzako diru-laguntzak[2]	11,1	13,1	12,6	13
Familientzako laguntza ekonomikoak[3]	96,1	94	86,9	71,3*
Familiari laguntzeko zerbitzuak. Haur-eskolak[4]	48	49	51	54,7*
Familiari laguntzeko zerbitzuak. Laguntza ekonomikoak[5]	-	0,2	0,21	0,21**

[1] Emandako laguntzen %-a, okupatu 1 edo gehiago eta 4 urtetik beherako seme edo alaba bat gutxienez duten familien kopuruari dagokionez.
[2] Haztatu gabeko ordezkatze-indizea. Sortutako enpleguen %-a, bateratze-neurriak hartu dituzten langileekin loturik.
[3] Emandako laguntza ekonomikoen %-a, urte bakoitzeko jaiotza kopuruari dagokionez.
[4] Haur-hezkuntzako sarean dauden tokien %-a, izan daitekeen toki-eskaerari dagokionez.
[5] Emandako toki kopurua, haur-arretaren sarean okupatutako toki bakoitzeko.

* Daturik argitaratu ez denez, 2005ean jaiotakoen kopurua 2004koaren berdintzat hartuta egin dira kalkuluak.
** 0-3 urte bitarteko haurrei dagokienez, haur-arretaren sarean okupatutako tokien daturik argitaratu ez denez, 2005/2006 ikasturterako kalkulua egiteko aurreko ikasturteko okupazio-maila hartu da.

Estaldurarik txikiena lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko neurriei dagokie, baina azken hiru urteotan estaldura-mailaren proportzioa gehien handitu duten neurriak dira.

Bestalde, oso selektiboak direnez, haur-hezkuntzako zentroetan eskolatzeko laguntza ekonomikoen estaldura oso txikia da.

Aurrekontua gauzatzea

Planaren indarreko lau urteetan 220 milioi euro baino gehiago gastatu dira, oinarrizko hiru neurri moten artean nahikoa modu orekatuan banatuta; garrantziaren ordenari jarraiki, hona hemen hirurak: haur-eskolak sendotzeko gastua (%34), seme-alabak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik familiei emandako laguntza ekonomikoak (aztertutako ekitaldi guztietako gastuaren %30,7 izanik), eta lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko langileentzako laguntzak (%23,9). Gainerako neurriek —sentsibilizazioa, enpresentzako laguntza ekonomikoak eta haur-hezkuntzako zentroetarako sarbidea izateko prestazioak— Planak eragindako kostuaren zati oso txikia osatzen dute.

Gastuaren bilakaera, neurri motaren eta banaketaren arabera (milako €)

Laguntza mota	2002	2003	2004	2005	Guztira	Banak.%	Hazkund. 2002/05
Sentsibilizazio-neurriak	325	401	1.006	1.000	2.733	1	**208**
Bateratzea. Langileentzako diru-laguntzak	6.401	14.201	15.066	16.880	52.548	24	**164**
Bateratzea. Enpresentzako diru-laguntzak	651	2.095	2.408	2.760	7.914	4	**324**
Familientzako laguntza ekonomikoak	15.020	15.903	17.484	19.300	67.707	31	**29**
Familiari laguntzeko zerbitzuak: haur-eskolak	5.442	17.327	25.008	27.000	74.776	34	**396**
Familiari laguntzeko zerbitzuak: laguntza ekonomikoak	3.000	3.604	3.916	4.000	14.520	7	**33**
Guztira	**29.470**	**53.532**	**64.888**	**70.940**	**220.197**	**100**	**130**

Bilakaerari dagokionez, ezin dugu aipatu gabe utzi haur-eskolak sendotzearekin lotutako gastuak direla gehien handitu direnak; izan ere, 2002an gastuaren %20 izatetik 2005ean ia %34 izatera igaro dira. Aitzitik, familientzako laguntza ekonomiko zuzenek garrantzi erlatibo txikixeagoa lortu dute 2005. urtean, 2002an planera bideratutako bi euro bakoitzeko euro bat baino gehiago zegokienean. Beraz, familia onuradunen kopuruarekin gertatu den

bezalaxe, aurrekontuaren ikuspegitik begiratuta, Planaren esparruan laguntzek betetzen duten egitekoari dagokionez, oreka handiagoa da.

Alderdi positiboak eta hobetu daitezkeenak

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundeen I. Planaren ebaluazio-txostenak eta ebaluazio-memoria orokorra irakurrita, planaren osaketaren, edukien eta aplikazioaren alderdirik positiboenak nabarmentzen dira:

- **Unibertsaltasuna.** Plana osatzen duten oinarrizko zazpi neurrietatik bat kenduta —haurrei arreta emateko zentroetako kuotak ordaintzen laguntzeko familientzako diru-laguntzena, alegia, errenta txikia duten familiei soilik aplikatzen baitzaie—, Planaren izaera guztiz unibertsala da eta ezarritako sarbide-baldintzak betetzen dituzten euskal familia guztiei zuzentzen zaie, errenta-maila dena delakoa izanik ere. Hainbat ikerketaren arabera, familiari laguntzeko neurrien —edo, gutxienez, neurri garrantzitsuenen— unibertsaltasuna da funtsezko baldintzetako bat, behar bezala garatu eta eraginkor izan daitezen.

- **Diskriminaziorik eza.** Planean ez da familia-lotura jakin bat lehenesten gainerakoen kaltetan, eta egun badiren familia-eredu guztiak hartzen ditu kontuan.

- **Erakundeartekotasuna.** Erakundeen —Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Udalak— arteko lankidetza eta koordinazioa da Planaren oinarri, baita irabazi-asmoa duten eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen artekoa ere, betiere Eusko Jaurlaritza buru izanik.

- Sendotu eta haztea. Lau urteetan, neurrien onuradun diren familien kopurua ez ezik, familia horiei eskainitako baliabide ekonomikoak ere handitu egin dira etengabe. Hortaz, esan dezakegu Plana sendotu egin dela, euskal familiei laguntzeko ezinbesteko tresna bilakatzera iristeraino; horrela bada, aurreikusitako neurriak zabaltzeko bigarren faseari ekin dakioke.

- **Dibertsifikazio mailakatua.** Erabilitako prestazio motak dibertsifikatu egin dira: lehenengo urtean eskaera handiena izan zuten laguntzen —jaiotzagatiko eta eskola-tokiak sortzeagatiko laguntzak— garrantzi erlatiboa murriztu egin da, eta lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko prestazioena, aldiz, handitu.

- **Neurri jakin batzuen estaldura handia.** Planean sartutako zenbait neurri —2 eta 3 urte bitarteko eskolatzea, edo seme-alabak dituzten familientzako laguntza

ekonomikoak— onuradun izan daitezkeen ia guztiei heltzen zaizkie; gainerako neurrietan estaldura hain handia izan gabe ere, pixkanaka handitu egin da Plana sendotu ahala.

Aipatutako alderdiak funtsezkoak direla eta balantzea guztiz positiboa dela alde batera utzi gabe, eta horrelako Plan baten lehenengo indarraldian gertatzea normala denez, egindako ebaluazioei esker ere jabetu gara badirela hobetu daitezkeen hainbat alderdi edo disfuntzio neurrien diseinuari, kudeaketari eta gauzatzeari dagokienez. Hona hemen laburbilduta:

- Helbururik eta ebaluazio-adierazlerik eza. Planaren neurri jakin batzuetan soilik —Haur Eskolen sarea sendotzearekin loturikoetan— ezarri dira adierazle zehatzak, helburuen lortze-maila balioestea ahalbidetzeko.

- Kasu jakin batzuetara mugatzea. Seme-alabak dituzten familientzako orain arte indarrean egon diren laguntza ekonomikoetan ez dira sartzen euskal familietako haur asko —lehenengo semea/alaba izaten da urtean jaiotzen diren haurren %60—, eta bigarren haurrarentzako laguntza ere oso kasu zehatzetan ematen da. Hori horrela izanik, erditze edo adopzio multipleetako jaiotzeetan ematen den laguntzarekin alderatuta, desoreka egon daiteke.

- Haur-eskolen sarea sendotzeko neurriak garatu dira gehien Planari ekin zitzaionetik, baina badira oraindik hainbat gabezia 0-2 urte bitarteko tartean: 5 hilabete eta urtebete bitarteko tartean, estaldura %23-24 inguru da, izan daitekeen eskaera guztiarekiko; eta 1-2 urte bitarteko tartean, %35. Familiari laguntzeko I. Planean proposatutako helburua %40ko estaldura lortzea zen, eta laster lortuko dugu. 2-3 urte bitarteko tartean %100eko estaldura lortzeko helburua behar bezala bete dugu, %100etik gorako estaldura potentziala lortuta.

- Bateratzeko laguntzen eskaera-tasa txikia gizonezkoen artean. Planaren lehenengo urtetik gaur arte handitu da, baina hala ere, emakumeekin alderatuta, askoz gizon gutxiagok hartzen dituzte eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketagatiko laguntzak; eta gainera, joera-aldaketa adierazten duen daturik ere ez dago. Lehen ere aipatu dugunez, ezin dugu pentsatu horrelako laguntzei esker gizartearen eta kulturaren arloko joera errotuak aldatuko direnik, ezta lan-eremuan egun oraindik suma daitekeen aukera-berdintasun eza konponduko denik ere. Beraz, nahiz eta horrelako laguntzetan diskriminazio positiboa aplikatu, seme-alabak zaintzeko zereginetan bi gurasoen berdintasunezko inplikazioa lortzeko ez dira oso lagungarri izan.

- Bateratze-laguntzen aplikazio-eremuan langile autonomoak ez sartzea.
- Familientzako laguntza ekonomiko zuzenen kasuan, adopzioaurreko familia-harreren kasuak ez sartzea.
- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko politikaren esparruan emandako laguntzen kasuan, familia-harrerak ez sartzea.
- Seme-alabak dituzten familiek seme-alaba horiek zaintzeko zaintzaileak kontratatzearen aldeko neurririk eza, eta familia-unitatean bizi daitezkeen baina inoren laguntza behar dutenak zaintzea errazteko neurririk eza.
- Urteko lanaldiaren iraupenari eutsita, lan-ordutegia malguagoa izatearen aldeko neurririk eza.
- Informazioko eta sentsibilizazioko jarduerak egin diren arren, ez da gauzatu kanpaina formal eta masiborik.

Familiei laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honekin, aurreko etapako lorpenak sendotzeko konpromisoa hartu dute euskal administrazio publikoek. Horretaz gain, aldaketa, zabalkuntza eta hobekuntza egokiak ere egin nahi dituzte lehen etapan **bete ez diren premiei erantzutearren** eta planaren diseinuan nahiz aplikazioan izandako disfuntzioak zuzentzearren.

III. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN PRINTZIPIOAK

Autonomia Erkidegoko familia-politika funtsezko balioetan oinarritzen da, ez balio instrumentaletan: familiako kide guztien garapen pertsonalean, familia-proiektuari buruzko erabakiak hartzeko askatasunean, bi bikotekideentzat eskubide- eta betebehar-berdintasunean, eta familiako kide guztien eskubideen errespetuan eta elkartasunean, kide horien adina eta autonomia-maila edozein izanik ere.

Ikuspegi horretatik begiratuta, Familiei Laguntzeko II. Planaren printzipio gidariak honako hauek dira:

- Euskal administrazio publikoen jardunetik abiatuta, familiaren zeregina sustatzea eta osatzea, belaunaldien arteko eta belaunaldi bakoitzaren barneko elkartasunaren eragile nagusia baita.

- Familiak sustatzea balioak transmititzeko iturri gisa; izan ere, bertan transmititzen dira baliorik garrantzitsuenak, hala nola tolerantzia, elkartasuna, errespetua, berdintasuna, erantzukizuna, partaidetza, eta, oro har, gizarte-bizikidetzarako printzipio demokratikoak.

- Diskriminazio-ezaren printzipioaren bitartez familia-aniztasunarekiko errespetua bermatzea eta sustatzea; horrela bada, inor ezin izango da diskriminatu bere familia taldearengatik, seme-alabatasunean, ezkontzan edo bi lagunen —sexu ezberdinekoak nahiz berdinekoak izan— izatezko bikotean oinarritutako familia izanik ere. Printzipio hori aplikatuz, Autonomia Erkidegoko familia-politikak era guztietako familiak izango ditu jomugan, familiaren osaera eta tamaina edozein izanik ere, eta familia edo familia talde bakoitzaren oinarri diren bikote-harremanak eta filiazioa kontuan izan gabe.

- Familiarik kalteberenetan gerta daitekeen hainbat egoeraren prebentzioa, hala nola laguntzarik eza, defentsarik eza, moldagabezia, abandonua edo babesgabetasuna.

- Gizarte-ekimenaren parte-hartze aktiboa sustatzea, familiari dagozkion sustapeneko, arretako eta laguntzako plan eta programen aplikazioan.

- Familia-harremanetan sortzen diren gatazken prebentziorako, murrizketarako eta/edo horiek bideratzeko behar diren estrategia eta baliabideak sustatzea.

- Hautatzeko aukera ematea familiei, ahal den neurrian betiere, beren kargura dituzten haurrak eta helduak zaintzeko nahiago dituzten formulei dagokienez.

- Familiei laguntza eta babesa emateko sistema integrala osatzea, familian izaten diren eta familia mota guztien premia- edo gabezia-egoera guztietarako zerbitzuak eta laguntzak ematen saiatuz. Horretarako, II. Plan honetan garrantzi berezia emango zaio ekipamendu eta zerbitzu soziokomunitarioak garatzeari.

IV. HELBURUAK

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Familia mota guztien eta haien seme-alaben eskubideak sustatzea eta babestea.
- Bereziki familiari begirako zerbitzuen kartera aztertzea, eta zerbitzu horiek ahalik eta eraginkorren izateko zein neurri har daitezkeen erabakitzea.
- Erakundeen arteko konpromisoa, zerbitzu-kartera homogeneizatu eta harmonizatzearen bitartez, herritar guztiek Autonomia Erkidego osoan izan dezaten zerbitzu eta prestazioetarako sarbidea, berdintasunean.
- Erakunde guztien artean garatutako familiari arreta emateko politika koordinatua eta integrala sustatzea.
- Familien eta kideen ongizate-maila hobetzen laguntzea.
- Bikoteek eta jendeak familia-proiektuari ekin eta nahi duten seme-alaba kopurua izateko egun eragozpen diren oztopoak pixkanaka ezabatzen edo murrizten laguntzea.
- Emakumea lan-arloko bizitzan sartu eta lanbide-karrera garatzeko erraztasunak ematea.
- Familiari laguntza eta babesa ematearen aldeko sentsibilizazio handiagoa sustatzea, erakundeen eta gizarte-eragile guztien parte-hartzearekin.
- Familia-eremuan, emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzea, batez ere, seme-alaben zaintzari eta heziketari dagokionez, baita inoren laguntza behar duten senitarteko helduei arreta emateari dagokionez ere.
- Familiaren eta lanbidearen arloko erantzukizunak bateratzen laguntzea.
- Belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea.

V. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONPROMISOA FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN ESPARRUAN

Erakundeen arteko lankidetza

Familia-errealitatea dimentsio anitzekoa denez, erakundeen jardun-eremu material guztietatik eta eskudunak diren administrazio publiko guztietatik abiarazi behar dira sustapeneko eta arreta eta laguntza emateko neurriak, eta ezinbestekoa izango da sektore publikoaren eta gizarte-ekimenaren organismo, erakunde eta elkarteen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako bide eraginkorrak ezartzea, neurri sorta koherentea lortze aldera, modu eraginkorrean aplikatze aldera, eta baliabideen erabilera eta baliatzea zentzuzkoa izate aldera.

Ikuspegi horretatik begiratuta, eta Familiari Laguntzeko II. Plan hau landu aurretik, euskal administrazio publiko guztietan —autonomiaren, aldundiaren eta udalaren mailakoak— familiei laguntzeko garatutako zerbitzu eta programak bildu ditugu, zerbitzuen errealitatearen berri izatearren, eta jakintza horretatik abiatuta, erakundeen arteko koordinazioa indartuko dugu, herritar guztiek zerbitzu guztietarako sarbidea izan dezaten, aukera-berdintasunean.

Plan hau diseinatu eta onartu zenetik, aplikazioaren jarraipena egin eta emaitzak ebaluatzen diren arte, familian eragiten duten politika guztiak modu koherentean egituratzea bermatuko duen eredu bateratua lortzea da Planeko etapa guztien xedea.

Aurrekontu-lehentasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eskumen-eremuari atxikita, aurrekontuan lehentasuna izango dute Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honen esparruan programatutako familiei begirako sustapeneko eta laguntza eta arreta emateko jardunek.

VI. JARDUN ILDO ESTRATEGIKOAK

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plana bederatzi ildo estrategikotan egituratzen da: lehenengo zortzi ildoak jarduteko jarraibideak dira, eduki eta neurri espezifikoei buruzkoak; eta azkena, aldiz, instrumentala da eta zortzi ildo horien esparruan lortu nahi diren helburuen eta hartutako konpromisoen betetze-maila egiaztatzea ahalbidetzeko antolatu da.

Honako hauek dira:

1.- Araudia garatzea

2.- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea

3.- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egitea

4.- Familiei laguntzeko zerbitzuak

5.- Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

6.- Gizarte-sentsibilizazioa

7.- Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

8.- Euskal Autonomia Erkidegoan familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea

9.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa

1. ildo estrategikoa.- Araudia garatzea

Azken urteotan, EAEn garrantzi handia lortu dute seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ekimenek, eta esan gabe doa etorkizunean ere gero eta protagonismo handiagoa izango dutela; hori dela-eta, oinarrizko esparru juridiko bat egituratu eta sendotzea komeni da, ekimen horiek esparru horretan gara daitezen. Ikuspegi horretatik begiratuta, Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planaren lehenengo ildo estrategikoa arautze-premia horiek betetzera bideratu da, eta honako lege-ekimen hauek programatu dira, Planaren indarraldirako.

1.1. Familiei Laguntzeko Legea

1.2. Familia Bitartekotzaren Legea

1.3. Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua

1.4. Familiari Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituzten Dekretuak

1.5. Familiaren Euskal Kontseilua arautzea

1.6. Familiaren Behatokia arautzea

1.1. Familiei Laguntzeko Legea

Familiei Laguntzeko Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan datozen urteotan familiari laguntzeko politika bideratu eta eratzeko esparru juridikoa, jarraibideak eta neurriak ezarriko dira, euskal administrazio publikoek autonomia-eremuan dagoeneko abiarazi eta araututako eskubide, onura, zerbitzu eta prestazio ezberdin guztiak multzo koherente eta bakarrean bilduta. Egungo laguntzen jarraitutasuna onartu eta bermatuta, baita laguntza horiek pixkanaka zabalduta ere. Halaber, egun badiren prestazio eta zerbitzuak arautuko ditu, eta egungo neurriak edo bestelako ekimen berriak zabaltzeko neurri gehiago abiaraziko ditu, jardunen aniztasuna osatze aldera.

Oro har, testu horren bitartez honako hauek arautuko dira:

- Familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak: alde batetik, beren kargurako seme-alabak dituzten familiei zuzendutakoak, 2. ildo estrategikoan zehaztutako terminoetan hobetu eta zabalduta; bestetik, neurri berriago bat, hau da, 0-2 urte bitarteko haurrei arreta emateko zaintzailea kontratatzeko laguntza. Era berean, multzo honetan sartuko dira 3 urtetik beherako seme-alabei arreta emateko zentroetako kuotak ordaintzen laguntzeko familiei ematen zaizkien diru-laguntzak.

- Familiaren eta lanbide-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak, seme-alabei arreta emateagatiko eszendentziarekin eta lanaldi-murrizketarekin loturikoak, betiere 3. ildo estrategikoan aurreikusitakoaren arabera hobetuta; baita aurrekoen antzeko laguntza mota berri bat ere, inoren laguntza behar duen senitarteko heldu bat zaintzeagatiko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa gertatzen denerako.

- Jardun administratiboaren zenbait eremutan, familiari laguntzeko neurri sektorialak; esate baterako zerga-neurriak eta etxebizitzaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetan garatutakoak.

Arautuko diren neurriak aplikatu egingo dira, honako hauek alde batera utzi gabe: autonomia-mailako bestelako arau-testuetan aurreikusitakoak, hala nola otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa; maiatzaren 7ko 2/2003 Legea, Izatezko Bikoteak arautzekoa; otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta arlo horretan aplika daitezkeen Estatuko xedapenetan aurreikusitakoak, bai Gizarte Segurantzaren prestazioak arautzen dituen araudiaren esparruan, bai arau espezifikoen esparruan, eta batik bat, azaroaren 18ko40/2003 Legea, Familia Ugariei Laguntzekoa; azaroaren 5eko 39/1999 Legea, langileen lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egitea sustatzekoa, eta etorkizuneko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Bermatzeko Legea.

Familiarentzako arreta eta laguntzari dagokionez, erakundeen antolamendua ere egituratuko da testuan, batik bat Familiaren Euskal Kontseilua eta Familiaren Behatokia sortuta.

1.2. Familia Bitartekotzaren Legea

Familia Bitartekotzaren Legearen ardatz honako hau izango da: familia-unitatean sortzen diren gatazkak auzibidetik at konpontzeko formulatzat, bitartekotza arautzea. Europako ordenamendu juridikoetan tradizio handirik ez duen arren, Europar Batasuneko herrialde gehienetan ezartzen ari da bitartekotza, eta arrakastaz, gainera; herrialde horien artean, hainbat desberdintasun daude, bitartekotzaren nondik norakoari eta eremuari dagokienez. Eta gero eta sendotasun handiagoa lortzen ari da, eraginkorra dela frogatu duelako familiako kideen arteko komunikazioa hobetzen, aldeen arteko gatazkak murrizten eta gatazka horiek konpontzeko behar den denbora ere murrizten, abeniko-akordioak lortzen, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei eutsiko zaiela bermatzen, eta banantze- eta dibortzio-prozedurekin lotutako kostu ekonomikoak eta gizarte-arlokoak murrizten. Figura horren gorakada indartu egin da Europako Kontseiluaren 1998ko urtarrilaren 21eko Gomendioari esker, non familia-bitartekotza ezartzeko edo, dagokionean, indartzeko eskatzen zaien Estatu

kideetako gobernuei, eta horretaz gain, bitartekotzaren oinarrizko printzipioak, eta ezaugarri eta ahalmen nagusiak definitzen diren.

Gure arau-eremuan, Estatuan oraindik ere ez dago figura horrentzat esparru juridiko propioa ezartzen duen araudirik; hala ere, dagoeneko hainbat Autonomia Erkidegok erabaki du horri buruzko Lege mailako araudia egitea. Hori horrela izanik, euskal ekimena bat dator gure ingurune hurbilenean sendotzen ari den joerarekin, eta arau-jarduna honako hauetan oinarritzen da: alde batetik, Konstituzioaren 39. artikuluan, zeinaren arabera botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzten, baita seme-alaben babes osoa ere; eta bestetik, Autonomia Estatutuan eta Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen aginduan esanbidez bildutako gizarte-asistentziako eskumenetan.

Aplikazio-eremu zabala izango du Legeak:

- Bikotea hautsi delako, edo banatze-, dibortzio- nahiz baliogabetze-prozeduratan hartutako neurri judizialak gauzatzeagatik, edo hartutako akordioetatik eratorritako zirkunstantzia-aldaketen eraginez sortutako familia-gatazkak.
- Bizikidetza-krisiak edo familian sor daitezkeen bestelako gatazka-egoerak; esate baterako gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkak, edo seme-alaben artekoak, edo elikagaien inguruan senitartekoen artean sor daitezkeenak.
- Adoptatuen edo harrera-egoeran daudenen eta adoptatu edo etxean hartu dituen familiaren eta/edo familia biologikoaren artean sortutako gatazkak.
- Gurasoen eta aitona-amonen edo beste senitarteko edo hurbilekoen arteko gatazkak, azken horiei gurasoen seme-alabekin harreman normalizatuak izatea eragozten zaienean.
- Familia-enpresetan izaten diren gatazkak, betiere familia-harremanetan eragina badute.
- Herentziak eta ondorengotzak eraginda familian sortzen diren gatazkak.

1.3. Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua

Otsailaren 18ko 3/2005 Legearen —Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa— 47.3. artikuluari jarraiki, aitarekin, amarekin edo bietako edozeinekin bizi ez diren haur eta

nerabeek eskubidea izango dute horiekin harremanetan egoteko, indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusitako mugak eta baldintzak errespetatuta. Kontaktu horiek gauza daitezen ahalbidetzeko aldeen arteko akordioa lortzea zaila den kasuetan, eta familia-gatazkak konpontzeko beste bide batera jotzeko aukera izatearren, legearen arabera Eusko Jaurlaritzari dagokio aurreko atalean aipatu dugun familia-bitartekotza arautzeko eta sustatzeko betebeharra, baita guraso eta seme-alaben arteko harremanari eustea ahalbidetuko duten elkarguneak sor daitezen sustatzea ere, bisitaldiak gainbegiratzea komeni den kasuetan, edo elkargune neutroa harremanerako lagungarri izan daitekeela uste den kasuetan.

Ikuspegi horretatik begiratuta, ezinbestekoa da baliabide horiek arautzea, garapen-dekretu baten esparruan. Arau horretan elkarguneak definituko dira: ohiko moduan, aldi baterakoa izaten den esku-hartzea eskaintzen duten zerbitzuak, esku-hartze hori familia-bitartekotzako tekniketan oinarrituta, eta guraso-erantzukizun partekatua lortzera bideratua izanik, eta beraz, baita familia-harremanen autonomia eta normalizazioa ere. Esleitutako jardueren artean, haurrak hartzeko eta uzteko garaian gainbegiratze-zerbitzuak eskain daitezke, edo gainbegiratutako nahiz gainbegiratu gabeko bisitaldiak antolatu, egoera bakoitzaren premiei eta ezaugarriei erreparatuta.

1.4. Familiari Laguntzeko Prestazio Ekonomikoak arautzen dituzten Dekretuak

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honek hainbat hobekuntza eta zabaltze eragin ditu egun badiren neurrietan, eta gainera, Planean laguntza-neurri berriak ere txertatu direnez, 1.1. ildo estrategikoan adierazitako Familiei Laguntzeko Legean esanbidez sartu behar izan gabe, Planak araudi espezifikoak behar ditu.

Hain justu, Eusko Jaurlaritzak honako arau-xedapen hauek landu eta onartu beharko ditu:

- Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Dekretua, Familiei Laguntzeko Plan honi esker txertatutako berrikuntzen arabera indarreko araudia egokitzeko asmoz.

- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen Dekretua, inoren laguntza behar duten helduei arreta emateagatiko eszedentziarekin edo lanaldi-murrizketarekin lotutako bateratze mota berriak ere txertatzearren.

- Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrei arreta emateko zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua, orain arte indarrean zeuden diru-sarreren tarte ekonomikoak egokitzearren.

1.5. Familiaren Euskal Kontseilua arautzea

Familiaren Euskal Kontseiluaren sorrera Familiari Laguntzeko Legean sartuta dago, eta Kontseiluaren nondik norakoa, osaera eta funtzionamendua garapen-arau baten bidez arautu beharko dira, betiere familiari arreta eta laguntza emateko politika publikoen eremuan erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko, gizartearen parte-hartzea sustatu eta errazteko zeregin nagusiari jarraiki. Horretarako, Kontseilu horri atxikiko zaizkio Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra eta Familiari laguntzeko Erakundeen Batzordea; orain arte, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren mendekoak ziren.

1.6. Familiaren Behatokia arautzea

Familiei arreta eta laguntza emateko eremuko arau multzoaren osagarri, Familiaren Behatokia arautzeko legedia ezarriko da; hortaz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren Familia Zuzendaritzari atxikiko zaio Behatokia. Euskal Autonomia Erkidegoan familia-egituren errealitatea etengabe aztertzea izango da haren egitekoa, euskal familia-politikaren eragina aztertzearekin batera. Behatokiak garatu beharreko eginkizun garrantzitsuenak 8.1. ildoan zehaztuko ditugu, Behatokiaren sorrerari buruzko ildoan, alegia.

2. ildo estrategikoa.- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea

Laguntza ekonomikoa emateko neurrien helburu nagusia zama arintzea da, hain zuzen ere, ekonomiaren aldetik oraindik egonkortasunik eta lasaitasunik lortu ez den garaian seme-alabak izan eta hazteak dakarren zama; Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen I. Planaren babespean hasi ziren garatzen neurri horiek, eta plan horren ekarpen garrantzitsuenetako bat izan ziren.

Esparru horretan funtsezko zeregina bete dutenez, eta aurreko etapan estaldura handia lortu zutenez, aldi berri honetan ere protagonismo berezia eta bultzada berria ematea merezi dute. Ikuspegi horretatik begiratuta, II. Planean hobekuntza nabarmenak sartu dira, bai Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak garatutako Familiaren kargurako seme-alabengatiko Laguntza Programarekin loturik, bai Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak garatutako hiru urtetik beherako haurrei arreta emateko zentroetako kuotak ordaintzeko Diru-laguntza Programarekin loturik.

2.1. Familiaren kargurako seme-alabengatiko laguntza-programa

2.2. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherakoentzako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntza programa

2.1. Familiaren kargurako seme-alabengatiko laguntza-programa. Aldizkako eta ezohiko laguntzak.

Familiaren kargurako seme-alabengatiko laguntzak dira familia-prestazio esaten zaienen artetik ezagunenak. Seme-alaben gurasoei laguntzera bideratzen dira. Europako herrialde guztietako familia-politiken elementu nagusia dira, horien arteko aldeak nabarmenak diren arren; batez ere, joera unibertsalistagoa duten iparraldeko herrialdeen (Danimarka, Suedia edo Norvegia, esaterako) gehi Frantziaren eta hegoaldeko herrialdeen (Grezia, Italia edo Portugal) artean, non prestazioen zenbaterainokoa, oro har, askoz ere txikiagoa den.

EAEko eremuan, I. Planaren esparruan indarrean zegoen familiaren kargurako seme-alabengatiko familia-prestazioen programan hiru laguntza mota aurreikusten ziren:

- Alde batetik, behin emateko laguntzak, bigarren semea edo alaba jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik ematen direnak.
- Bestetik, aldizkako laguntzak, hirugarren semea edo alaba eta hurrengoak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik ematen direnak.
- Eta azkenik, erditze edo adopzio multiplea izateagatiko laguntzak.

Laguntzeko Plan berriarekin, hiru neurri mota horiek aldatu eta honela geratu dira:

- Laguntza mota guztiak jaiotza- edo adopzio-kasuetan ez ezik, adopzioaurreko harreraren kasuetan ere aplikatuko dira.

- Behin emateko laguntzak, lehenengo seme edo alabarengatik ematen direnak, jaiotzaren, adopzioaren edo adopzioaurreko harreraren kasuetan emango dira.

  Laguntzaren zenbatekoa familia-unitatearen diru-sarreren mailaren araberakoa izango da, honako tarte hauei jarraiki:

  - Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) halako laura iristen ez diren errenta-mailen kasuan, laguntza 900 € izango da,

  - LGSaren halako lautik gorako eta seitik beherako errenta-mailen kasuan, laguntza 500 € zango da,

  - LGSaren halako seitik gorako errenta-mailen kasuan, laguntza 400 € izango da.

- Bigarren semea edo alaba izateagatiko laguntza bi urtean emango da, eta hirugarrena edo hurrengoak direnean, zazpi urtean jasoko da laguntza.

  Laguntzaren zenbatekoei dagokienez:

  - bigarren seme edo alabarengatik emandako laguntza 1.100 € izango da lehenengo urtean, eta 400 € bigarren urtean,

  - hirugarren seme edo alabarengatik eta hurrengoengatik emandako laguntza 1.100 € izango da lehenengo bost urtetan, eta 400 € eigarren eta zazpigarren urtean.

- I. Planaren esparruan erditze edo adopzio multipleagatik emandako laguntzak desagertu egin dira (II. Plana indarrean hasitakoan laguntza horien onuradun diren familien kasuan izan ezik), eta prestazio bikoitzeko sistema bat ezarri da horien ordez:

  - alde batetik, erditze, adopzio eta adopzioaurreko harrera multipleetako haurren kasuan, aurreko bi atalen barnean hartutako laguntzak jasoko dituzte, hau da, familiaren kargurako seme-alabengatiko laguntzen sistema orokorrari atxikiko zaizkio,

- bestetik, beste laguntza mota berri bat izango dute, ezohikoa eta zehatza, behin ematen dena jaiotza, adopzioa eta adopzioaurreko harrera multiplea delako. Erditze edo adopzio edo adopzioaurreko harrera multipleak egiteak dakartzan aparteko gastuei aurre egiteko emango denez, asistentziala izango litzateke eta zenbatekoa errentaren arabera zehaztuko da. Laguntza horren zenbatekoak honako hauek izango dira:

Gertakari mota	Zenbatekoa
- erditze edo adopzio bikoitza:	2.000 €
- erditze edo adopzio hirukoitza:	4.000 €
- erditze edo adopzio laukoitza:	6.000 €
- adopzioaurreko harrera bikoitza:	2.000 €
- adopzioaurreko harrera hirukoitza:	4.000 €
- adopzioaurreko harrera laukoitza:	6.000 €
- nazioarteko adopzio sinplea:	2.000 €
- nazioarteko adopzio bikoitza:	3.500 €
- nazioarteko adopzio hirukoitza:	5.000 €
- nazioarteko adopzio laukoitza:	6.500 €

Errenta-tarteak (Diru-sarrera gordinak)	Koefizientea
<LGSren halako hiru	2,00
=>LGSaren halako 3 eta <LGSaren halako 4	1,60
=>LGSaren halako 4 eta <LGSaren halako 5	1,40
=>LGSaren halako 5 eta <LGSaren halako 6	1,20
=>LGSaren halako 6	1,00

• Europako herrialde askotako —Belgika, Italia, Luxemburg, Austria edo Portugal— joerari jarraiki, ezintasunen bat duten seme-alabengatiko gehigarriari eutsi egin zaio; laguntza jasotzea eragin duen seme edo alabetako bati %33ko ezintasuna edo

handiagoa aitortzen bazaio eta Ezintasun Ziurtagiriaren bitartez frogatzen bada, dagokion laguntzaren zenbatekoa bikoiztu egiten da.

2.2. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherakoentzako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntza programa

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen I. Planean, familiei laguntzeko zerbitzuen ildo estrategikoan sartzen zen programa hori; bigarren etapa honetan, ordea, prestazioaren nondik norakoari erreparatuta, koherenteago iritzi diote seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoen ekimenen ildo estrategikoan txertatzeari.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aginduta, 2002. urtean eman ziren lehenengo aldiz diru-laguntza horiek, errenta txikienak dituzten familientzat seme-alabak haur-eskoletan sartzeak eragindako kostuen zati bat estaltzearren, eta hartara, familia horiei lehen zikloko ikastetxeetarako sarbidea mugatzea saihestuko da, ezarritako kuotak ordaindu ezin dituztelako.

Prestazio hori jasotzeko eskaeren kopurua gero eta handiagoa da, eta 2003-2004ko ekitaldietan aparteko fondoak bideratu behar izan dira eskaerei aurre egiteko. Horrela bada, egungo sisteman hainbat aldaketa egitea komeni da: Laguntzeko II. Plan honen esparruan, familia-errentaren tarte ekonomikoak eta ezarritako mugak berriz aztertuko dira, baita aurrekontu-erreserba handitu ere.

3. ildo estrategikoa.- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egitea

I. Planaren eginkizun nagusietako bat honako hau izan zen: lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko politikei ekiteko premiari —geroz eta premia larriagori— aurre egitea. Hortaz, bateratze-neurriak arautu ziren, amatasunak edo aitatasunak enpleguan eragin ditzakeen eragozpenak, eta lan-arloko bizitzak familiaren bizitzarako ezar ditzakeen mugak ezabatze aldera; horrekin guztiarekin, bizitzaren bi eremu horiek bateratzearen alde egin eta azken batean, aukera-berdintasuna ezartzen da gizonentzat nahiz emakumeentzat enplegurako sarbidean eta egonkortasunean, baita seme-alabak zaintzen modu intentsiboan aritzeko aukeretan ere, haurrek gehien behar duten garaian. Laguntza horien bitartez, kasu batzuetan gurasoek denbora gehiago har dezakete seme-alabak zaintzeko, aukera horren ondorio ekonomikoak murriztuta; beste zenbait kasutan, seme-alaben zaintza eta arreta

antolatzeko aukera izaten dute, gurasoen lanbide-karreraren garapenari trabarik jarri gabe (bereziki emakumearen kasuan).

Jakin badakigu bide horri eutsi behar diogula; beraz, etapa berri honetan jardun-ildo hori indartu eta zabalduko dugu, inoren laguntza behar duten senitarteko helduei begirako arreta ere errazte aldera.

3.1. Seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa

3.2. Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa

3.3. Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkoak kontratatzeko enpresentzako laguntza-programa

3.4. 2 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeko laguntza-programa

3.5 Norberaren konturako jarduera ekonomikoan dihardutenentzako edo autonomoentzako laguntza-programa, adingabeak edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituztenerako.

3.1. Seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa

Hona hemen aurreikusitako laguntza ekonomikoak:

- Seme edo alaba bakoitza zaintzeagatik eszedentzian dagoen langilearentzako laguntza ekonomikoa; gehienez ere hiru urtez emango da, jaiotza, adopzioa edo harrera izateagatik dagokion lizentzia, baimena edo bestelako antzeko eskubideren bat amaitzen denetik kontatzen hasita.

- Sei urte arteko semea edo alaba zaintzeagatik lanaldia heren bat eta erdia bitarte murriztu duen langilearentzako laguntza ekonomikoa; %33ko ezintasuna edo handiagoa onartua duen semea edo alaba baldin bada, ez da adin-mugarik aplikatuko.

Etapa berri honetan, laguntza-programa nabarmen hobetu da, izan ere, lehen laguntza mota hori jaso ezin zuten langile autonomoak hartzen ditu barnean, baita haurrak harreran — edozein harrera motan— dituzten familiak ere. Langile autonomoen kasuan, beren lanpostua betetzeko beste norbait kontratatu behar dute laguntza jaso ahal izateko (besteren konturako langileen kasuan ez da baldintza hori bete beharrik, ezta Kooperatibetako langile/bazkideen kasuan ere).

Lan-eszedentziagatik:

- 2.400 € urtean amen kasuan
- 3.000 € aiten kasuan

Lanaldi-erdia murrizteagatik:

- 1.800 € urtean amen kasuan
- 2.400 € aiten kasuan

Lanaldia heren bat murrizteagatik:

- 1.350 € urtean amen kasuan
- 1.800 € aiten kasuan

3.2. Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten besteren konturako langileentzako laguntza ekonomikoen programa

Familiaren kargurako seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu dutenei aplikatzen zaizkien neurrien antzekoak dira aurreikusitako laguntza ekonomikoak. Laguntza horiek baliatzeko aldia eta horietarako sarbidea dekretu bidez arautuko da.

3.3. Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkoak kontratatzeko enpresentzako laguntza-programa

Laguntzeko I. Planean aurreikusten zenez, eszedentzia nahiz lanaldi-murrizketa hartzen zen kasuetan, langabetu erregistratuak kontratatzeko diru-laguntzak ematen zitzaizkien erakunde pribatuei, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu zuten langileak ordezkatzeko, betiere lanpostu-erreserba duen eszedentzia izanik, edo ordezkatutako langileari ohiko lanaldira itzultzeko bermea ematen dion lanaldi-murrizketa baldin bada, lege-xedapenaren, hitzarmen kolektiboaren edo banakako itunaren arabera.

Seme-alabak edo inoren laguntza behar duten senitarteko helduak zaintzeagatiko eszedentziaren nahiz lanaldi-murrizketaren kasuetan, enpresak gertakizun arruntengatik Gizarte Segurantzan kotizatzen duenaren %100 arteko diru-laguntza emango da, Estatuko Administrazioak eman ez duen laguntzarekiko aldearen adinakoa.

II. Planaren esparruan, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzako laguntzak langile autonomoei ere zabaldu zaizkienez, eta laguntza hori jasotzeko beste langile bat kontratatu behar denez lanpostua betetzeko, kontratatu horiek egiteko laguntzak langile autonomoei ere zabaltzen zaizkie.

3.4. 2 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeko laguntza-programa

Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honen esparruan ekimen berri hori txertatzeko, Europako eremuan horrelako laguntzek duten tradizioa hartu da oinarri; izan ere, oso bestelako tradizioak dituzten herrialdetan —Frantzian, Norvegian, Finlandian edo Erresuma Batuan— zaintzaileak kontratatzeko hainbat laguntza mota dituzte.

EAEn, programa hori II. Planak ekarritako berrikuntza da. Arreta emateko zerbitzu publiko bat baliatu beharrean, semea edo alaba zaintzeko lagunen bat kontratatzen dutenei laguntza

ekonomikoa ematea da kontua. Zaintzailea kontratatzeak eragindako gastuak estaltzera bideratuko da laguntza, eta honako baldintza hauek bete behar dira onuradun izateko:

- besteren edo norberaren konturako lanbide-jarduera izatea, edo lanerako ezintasuna egiaztatzea,
- diruz lagundutako haurtzaindegi-tokirik ez baliatzea,
- Gizarte Segurantzan alta emandako zaintzaile bat kontratatzea, gutxienez lanaldi erdiz,
- sail honek adingabeak zaintzeagatiko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeagatik ematen duen laguntza ekonomikoa ez jasotzea.

Laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da: kontratatzaileak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzeko adina, eta familia-errentaren araberakoa izango da.

Laguntza honako epealdi honetan eska daiteke: gutxienez 3 hilabetez, eta gehienez, eskaera eskatzen denetik hasi eta haurrak bi urte betetzen dituen urteko abuztura bitarte, abuztua ere barne hartuta.

3.5. Norberaren konturako jarduera ekonomikoan dihardutenentzako edo autonomoentzako laguntza-programa, adingabeak edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituztenerako

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duten langile autonomoentzako laguntzak besteren konturako langileen berdinak izango dira, bai adingabeak zaintzeagatik, bai inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik, betiere haien lanpostua betetzeko beste norbait kontratatu dutela frogatzen badute.

4. ildo estrategikoa.- Familiei laguntzeko neurriak eta zerbitzuak

Familiei laguntza ematen dieten neurri eta zerbitzu guztiak metatzea da ildo estrategiko honen helburua, laguntza horiek ezarri, finantzatu eta kudeatzen dituen erakundea edozein izanik ere, eta erantzuten dioten premia ere edozein dela. Hortaz, jardun-eremu oso zabala hartzen du, eta mugatze materialaren irizpiderik ez bada ezartzen, esku-hartze administratibo

ia guztietara heda daiteke, azken batean guztiek baitute jendearengan eraginen bat, eta beraz, baita jendearen familia-unitatetan ere. Horren ondorioz, eta arlo ezberdinetatik bultzatutako plangintzan bikoiztasunak eta gainjartzeak saiheste aldera, ildo honetan honako zerbitzu hauek soilik sartuko ditugu: zuzen-zuzenean familiei eskaintzen zaizkien zerbitzuak; eta familiengan eragin nabarmena izan dezaketen arren, familiaren premiari baino gehiago, familiako kideren baten edo batzuen premiei erantzuteko diseinatu eta aplikatzen diren bestelakoak alde batera utzita.

Ez da erraza izaten muga hori ezartzea, eta gizarte-zerbitzuen eremuan, bereziki, oso zaila izan ohi da. Izan ere, askotan, zerbitzu bat emanda hartzaile nagusiari ez ezik, haren familia-inguruneari ere mesede egiten zaio esku-hartze arlo horretan; esate baterako, inoren laguntza behar duten helduei arreta emateko zerbitzu askoren kasua aipa dezakegu. Logikari jarraiki, gizarte-zerbitzuen kartera, estaldura eta planifikazioa ez dira sartzen Familiari Laguntzeko Plan batean; aplikazio-esparru espezifiko bat eskatzen dute, hala nola gizarte-zerbitzuak antolatzeko arau bat.

Definitzeko zailtasun horiek eragindako mugak ahaztu gabe, II. Plan honen esparruan zentzu hertsian familiari laguntzeko neurriak eta zerbitzuak zerrendatuko ditugu jarraian. Tresna multzo horri dagokionez, eta bereziki, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen eremuan txertatutako tresnei dagokienez, plan hau indarrean egongo den datorren bosturtekorako bi helburu nagusi ezarri dira:

- Alde batetik, zerbitzu mota bakoitzerako estaldura-maila egokiak erabakitzea.
- Bestetik, Planaren indarraldian lor daitezkeen estaldura-mailak, familiari arreta emateko zerbitzu iraunkorrei dagokienez, lurraldeen arteko desorekak pixkanaka desagertuko direla bermatzearren.

4.1. Familia

- Familia ugariaren tituluak eta txartelak.
- Izatezko Bikoteen Erregistroa.
- Familia Ugarientzako Gida.

4.2. Hezkuntza

- 3 urtetik beherakoentzat haur-eskolak. Planaren aurreikuspenak, honako taula honen arabera.

AURREIKUSPENA 0-3

	2005/06		2006/07		2007/08		2008/09		2009/10	
	IKASLEAK	GELA	IKASLEAK	GELA	IKASLEAK	GELA	IKASLEAK	GELA	IKASLEAK	GELA
PARTZUERGOA										
0 URTE	1.091	136	1.488	186	1.904	238	2.304	288	2.704	338
URTE 1	1.563	120	2.158	166	2.756	212	3.354	258	3.965	305
2 URTE	198	11	198	11	198	11	198	11	198	11
UDALARENAK										
0 URTE	552	69	552	69	552	69	552	69	552	69
URTE 1	1.352	104	1.352	104	1.352	104	1.352	104	1.352	104
2 URTE	1.566	87	1.566	87	1.566	87	1.566	87	1.566	87
PUBLIKOAK										
0 URTE	16	2	16	2	16	2	16	2	16	2
URTE 1	26	2	26	2	26	2	26	2	26	2
2 URTE	10.386	557	10.530	585	10.692	594	10.854	603	11.016	612
PRIBATUAK										
0 URTE	1.472	184	1.496	187	1.520	190	1.536	192	1.560	195
URTE 1	3.601	277	3.653	281	3.705	285	3.370	290	3.822	294
2 URTE	7.956	442	8.082	449	8.190	455	8.316	462	8.442	469

4.3. Etxebizitza

- Guraso bakarreko familiak; babes ofizialeko etxebizitzen sustapenetan nahitaezko erreserba bat ezarri da adingabeko seme-alaben ardura duten guraso bakarreko familia-unitateentzat.

- Horretaz gain, Etxebizitza Sailburuak babes ofizialeko etxebizitzen sustapenetan erreserba gehigarriak ezartzeko aukera xedatu da, sustapenaren ezaugarri bereziei edo udalerri edo eremu jakin horren eskaerari erreparatuta.

- Familia ugariak; babes ofizialeko etxebizitzetan, sustapen bakoitzeko etxebizitzen %3 (edo frakzioa, kopuru hori bat baino txikiagoa izanez gero) soilik izango dira 90 m^2 baino handiagoak, betiere 120 m^2 baino txikiagoak izanik; etxebizitza horiek bost kide edo gehiago dituzten bizikidetza-unitateentzat edo familia ugarientzat gorde behar dira, ezinbestean.

- Etxebizitza libre erabilia erosteko Etxebizitza Sailak ematen duen itzuli beharrik gabeko diru-laguntza puntu 1 handitu da, %5etik 6ra, baldin eta onuraduna familia ugaria bada; eta hirugarren semea edo alabarengatik eta hurrengoengatik 600 € gehiago emango dira.

- Babes ofizialeko etxebizitzetarako sarbidea arautzen duen araudiaren esparruan, familia ugariek ez dute baldintza hau bete behar: etxebizitzarik ez izatea jabetzan, jabetza soilean, edo lurrazal- edo gozamen-eskubidean aurreko segidako bi urtetan, baldin eta titular diren etxebizitza horrek gutxienez 36 m^2 eta gehienez 75 m^2 baditu, pertsona bakoitzeko ratioa gehienez 15 m^2 izanik.

  Kasu horietan, titular diren etxebizitza hori Administrazioaren esku utzi behar da nahitaez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak erosi edo alokairuan jar dezan.

- Aurreikuspenen arabera, bost kide edo gehiagoko bizikidetza-unitate batekoak edo familia ugari batekoak izanik, etxebizitza baten titular direnei ez zaie baja emango babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaile-erregistroan esleitutako etxebizitza bati uko egiteagatik, baldin eta etxebizitza horrek pertsona bakoitzeko 15 m^2-ko ratioa gainditzen ez badu, prozedura orokorraren salbuespen baita egoera hori.

- Azkenik, etxebizitza birgaitzeko kasuetarako aurreikusitako laguntzen zenbatekoa handitu egingo da bost kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat eta familia ugarientzat; esate baterako zerga-arintzea, mailegu kualifikatua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntza. Laguntza horiek honela kalkulatzen dira: bizikidetza-unitatearen diru-sarreren araberako ehuneko jakin batzuk aplikatuta, eta egin beharreko obra motaren arabera, betiere gehienez 5.400 €-ko diru-laguntza izanik birgaitze integratuko kasuetan, eta 3.800 €-koa, birgaitze bakanduko kasuetan; familia horientzako aurreikusitako igoera %5ekoa da.

4.4. Familiari zuzendutako gizarte-zerbitzuak

- Larrialdi-egoeretarako familia-ostatuko zerbitzuak.
- Inoren laguntza behar duten senitarteko helduak zaintzen dituztenentzako atseden hartzeko zerbitzuak.
- Atseden hartzeko Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Atseden hartzeko aldi baterako egonaldiak.
- Atseden hartzeko etxez etxeko programak.
- Familia Orientazioko, Bitartekotzako eta Terapiako zerbitzuak.
- Familia Elkarguneak.
- Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktimei arreta emateko zerbitzua.
- Erasotzaileei arreta emateko zerbitzuak.

- Tratu txarren biktima diren emakumeei aholkularitza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzua, eta abar.

5. ildo estrategikoa.- Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika

Familiei zuzendutako zerga-laguntzen helburua honako hau da: gizartean, errenta-banaketan faktore berri bat txertatzea, euren kargurako pertsonak dituzten familia-unitateen alde egitearren, familia horiek gainerako familiek baino gastu handiagoa egiten baitute. Hortaz, familiei laguntza ekonomikoa ematea da xedea, seme-alaben kopurua handitzeak dakartzan ezohiko zailtasunei aurre egiten laguntzeko, eta horrela, familia-unitatea eraikitzeari dagokionez aukeratzeko askatasuna izango dute, baina aldi berean, inoren laguntza behar duten senitarteko helduei arreta emateko ere lagungarri izango da.

Neurri horien bitartez, errenta berriz banatu eta familiak konpentsatu egiten dira, gizartearloan ekarpen handia egiten baitute; funtsean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikatzen dira.

II. Plan honen esparruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztien eskubideberdintasuna bermatzearren, zerga-onuretarako sarbidean irizpide homogeneoak hartzea aurreikusi dute arlo horretan eskudunak diren Foru Aldundiek, baita onura horien zenbatekoak berdintzea ere, hiru Lurralde Historikoetan. Halaber, errenta-tarte txikienean dauden pertsona eta familiei kalterik ez eragitearren, kuota-kenkariak aplikatzeari eutsiko diote, zerga-oinarrietan murrizketak egin beharrean.

5.1. Ondorengoengatiko zerga-kenkariak

5.2. Aurrekoengatiko zerga-kenkariak

5.3. Bestelako zerga-kenkariak

5.4. Tasa eta prezio publikoetan salbuespenak eta hobariak

5.1. Ondorengoengatiko zerga-kenkariak

Kenkari mota horrek tradizio handia du dagoeneko gure esparruan, Eskandinaviako herrialdeak kenduta, Europako herrialde gehienetan ohikoak diren praktiken ildoari jarraiki.

Kasu gehienetan, hainbat kenkari mota izaten dira: bat oinarrizkoa eta besteak gehigarriak, adin jakin batetik beherako seme-alabengatik, ezintasunen bat duten seme-alabengatik edo guraso bakar izateagatik ematen direnak. Oro har, oinarrizko kenkaria eta kenkari gehigarriak metatu egin daitezke, eta zerga-oinarrian aplikatutako kenkari gisa edo zerga-kreditu gisa aplika daitezke.

Modu batekoa nahiz bestekoa izan, kenkarien zenbatekoan gorabehera handiak izaten dira herrialde batetik bestera: Frantzian, Belgikan eta Holandan oso handia da, baina azken kasu horretan, gurasobakar-egoeretan soilik aplika daiteke.

Gorabehera horiek oso handiak dira seme-alaben adinaren arabera: oro har, oinarrizko kenkaria adingabeko seme-alaba guztiengatik aplikatzen da, edo adinez nagusi izanda ere, ikasten ari diren seme-alabengatik, edo lanean egonda ere, diru-sarrerak oso txikiak dituzten seme-alabengatik; zenbait kasutan, adin-muga ez da kontuan izaten semeak edo alabak ezintasunen bat baldin badu; bestalde, kenkari gehigarria seme-alaba txikiengatik soilik aplikatzen da (esate baterako, Belgikan, 3 urtetik beherakoengatik) edo egoera jakinen batengatik, hala nola ezintasunen bat izateagatik.

Badira beste zerga-kenkari mota batzuk ere; adibidez, ondorengoak zaintzeagatik etxerako laguntza kontratatzeko kenkariak, Alemanian, Belgikan, Frantzian eta Erresuma Batuan aplikatzen direnak, baina ez Eskandinaviako herrialdeetan, edo seme-alabak etxetik kanpo zaintzeak eragindako gastuengatiko kenkariak (Alemania, Belgika, Frantzia, Holanda, Erresuma Batua eta Norvegia).

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ondorengoei dagokienez, Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Plan honen esparruan hainbat kenkari mota izango dira:

- Alde batetik, ondorengoengatiko kenkariak, zentzu hertsian; zergadunarekin bizi den ondorengo bakoitzarengatik kenkari bat egiten da, eta bosgarren ondorengora arte, kenkari horren zenbatekoa handitzen doa. Horretarako, Laguntzeko II. Plan honen esparruan ondorengotzat hartuko dira adoptatutako seme-alabak, nahiz harrera iraunkorrean eta adopzioaurreko harreran hartutakoak.

- Bestetik, seme-alaben urteko mantenua ordaintzeagatiko kenkaria; epaileak erabakita, seme-alaben urteko mantenua ordaintzen duten zergadunek aplika dezakete, eta kontzeptu horrengatik ordaindutako zenbatekoen %15 adinakoa izango da, betiere seme-alaba kopuruaren arabera handitzen diren muga jakin batzuen barruan.

5.2. Aurrekoengatiko zerga-kenkariak

Aurrekoak bezalaxe, Europako herrialde ugaritan ematen dira aurrekoengatiko kenkariak eta hainbat motatakoak daude.

- Familiaren kargurako aurrekoengatiko kenkariak. Europako herrialde gehienetan badira horrelako kenkariak, zerga-oinarriaren gaineko kenkariak direla, Eskandinaviako herrialdeetan izan ezik, eta Italian eta Portugalen izan ezik, non zerga-kreditu moduan ematen diren. Kenkarien zenbatekoa ere nabarmen aldatzen da herrialde batetik bestera: Frantzian, Belgikan eta Alemanian dute zenbateko handiena, eta Portugalen, Italian eta Irlandan, aldiz, txikiena. Kenkari hori aplikatzeko baldintzak zaintza behar duen pertsonaren adinarekin, ezintasunarekin edo arreta-premia iraunkorrarekin, edo haren diru-sarrera mailarekin loturik daude.

- Inoren laguntza behar duten senitartekoak etxetik kanpo zaintzeak eragiten dituen gastuengatiko kenkariak. Horrelako zerga-neurria Alemanian, Finlandian, Irlandan eta Portugalen soilik daukate, eta Portugalen izan ezik, gainerako herrialdeetan zerga-oinarriaren gaineko kenkaria izaten da. Alemanian eta Portugalen, adinekoen egoitza-arretak eragindako gastuak ere sartzen dira.

- Inoren laguntza behar duen senitarteko heldu bat zaintzeko etxerako laguntza kontratatzeagatiko kenkariak. Ez da oso neurri ezaguna. Alemanian eta Belgikan soilik ematen da, zerga-oinarriaren gaineko kenkari gisa; eta Frantzian, zerga-kreditu gisa. Belgikan eta Frantzian zenbatekoak oso handiak dira, semea edo alaba zaintzeko etxerako laguntza kontratatzen denean aplikatzen direnen adinakoak.

Gure eremuan, aurrekoengatiko zerga-kenkariak aurreko bakoitzarengatik aplikatzen dira, baldin eta urte natural osoan zergadunarekin batera bizi bada modu iraunkorrean eta etengabe; bizikidetzatzat hartuko da, halaber, ondorengoak bere ondaretik ordaintzen badu aurrekoa urte natural osoan modu iraunkorrean eta etengabe bizi den egoitzako gastua. Aplikazio-modu espezifikoak aurreikusten dira kasu jakinetarako: maila bereko ondorengo askorekin bizi bada aurrekoa, edo maila ezberdineko ondorengoekin bizi bada.

5.3. Bestelako zerga-kenkariak

Orain arte aipatutakoak alde batera utzita, Foru Aldundiek beste hainbat zerga-kenkari mota ere aplika ditzakete; esaterako:

- Ezintasunen bat duten pertsonengatiko kuota-kenkaria; minusbaliatu-kalifikazioa duen zergadun bakoitzari aplika dakioke eta zenbatekoa aldatu egiten da minusbaliotasun-mailaren eta hirugarren baten laguntza-premiaren arabera.

- Adinagatiko kuota-kenkaria; 65 urtetik gorako zergadun bakoitzari aplika dakioke eta 75 urtetik gora zenbatekoa bikoiztu egiten da.

- Familia ugarietan, alokairuagatiko kuota-kenkaria; gainerako zergadunei dagokiena baino handiagoa.

- Familia ugarien kasuan, ohiko etxebizitza erosteagatiko kuota-kenkari gehigarria —inbertsioagatiko kenkaria, eta dagokionean, finantziazioagatiko kenkaria—; gainerako zergadunen kasuan aurreikusitakoa baino handiagoa, betiere zerga-oinarria muga jakin batzuen barruan egonda.

- Guraso bakarreko familien kasuan, ohiko etxebizitza erosteagatiko kuota-kenkari gehigarria.

5.4. Tasa eta prezio publikoetan salbuespenak eta hobariak

- Unibertsitate Publikoaren unibertsitateko zerbitzu akademikoak jasotzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoetan salbuespenak eta hobariak:

  - kategoria orokorreko familia ugarietako kide diren ikasleek %50eko hobaria kuotan,

  - kategoria bereziko familia ugarietako kide diren ikasleak kuota ordaintzetik erabat salbuetsita geratuko dira,

  - minusbaliotasun-ziurtagiriaren bidez frogatutako %33ko minusbaliotasun-maila edo handiagoa dutenak kuota ordaintzetik erabat salbuetsita geratuko dira,

  - ekintza terroristaren baten biktimak eta haien ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten bikotekideak kuota ordaintzetik erabat salbuetsita geratuko

dira, baita haien seme-alabak eta haiek legez hartutako pertsonak ere.

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskaintzen dituen unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzuetako prezio publikoetan salbuespenak eta hobariak:

  - ekintza terroristaren baten biktimak eta haien ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten bikotekideak kuota ordaintzetik erabat salbuetsita geratuko dira, baita haien seme-alabak eta haiek legez hartutako pertsonak ere,

  - kategoria bereziko familia ugarietako kide diren ikasleak erabat salbuetsita geratuko dira,

  - kategoria orokorreko familia ugarietako kide diren ikasleek %50eko hobaria kuotan.

- Familia ugarien kasuan, garraio publikoetan salbuespenak eta hobariak. Beren eskumen-eremuan, euskal administrazio publikoek salbuespen- eta hobari-erregimen bat ezarriko dute familia ugarientzat.

- Udal-tasa eta -zergetan salbuespenak eta hobariak. Tokiko administrazioek salbuespen- eta hobari-erregimen bat ezar dezakete familia ugarientzat, guraso bakarreko familientzat eta oinarrizko errentaren onuradun diren familientzat, oinarrizko zerbitzu publikoei (energia-hornidura, ura, estolderia, zabor-bilketa) eta hiritar eta landatar ondasun higiezinen gaineko zergari dagozkion tasa eta prezioetan.

6. ildo estrategikoa.- Gizarte-sentsibilizazioa

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen I. Planaren esparruan, berebiziko garrantzia izan dute sentsibilizazio-neurriek, eta sendotze-etapa berri honetan ere protagonismo berezia izan behar dute.

Ildo estrategiko hau oinarrizko bi helburu lortzera bideratua dago:

- Lehena, eta espezifikoena, eskura dauden laguntza eta zerbitzu guztien berri modu egokian eta luze eta zabal ematea da, onuradun izan daitezkeenak laguntza eta zerbitzu horietarako sarbiderik gabe gera ez daitezen horien berri ez izateagatik.

- Bigarrena, orokorragoa, gizartea, oro har, eta talde jakin batzuk —besteak beste,

enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak, edo enpresak berak— kontzientziatzea da, euskal administrazio publikoetatik garatzen den familia-politikaren oinarri diren balioen eta familiaren garrantziaz jabearazteko.

Helburu horiei jarraiki, II. Plan honen indarraldian honako ekimen hauek garatuko ditugu:

6.1. Informazio-kanpainak

6.2. Publizitate-kanpainak

6.3. Argitalpenak

6.4. Biltzarrak eta Jardunaldiak

6.1. Informazio-kanpainak

Funtsean, Planean aurreikusitako laguntza mota guztien onuradun izan daitezkeen familia-unitateek laguntza horien inguruko informazioa izan dezaten bermatzera bideratuko dira informazio-kanpaina horiek, eta hartara, Administrazioetara gerturatzeko nahikoa informazio izango dute, egoki iritzitako informazio osagarria eskatu, eta kasuan kasu, beren egoerari dagozkion laguntzak eskatzeari ekin diezaioten.

Zehatz-mehatz, honako informazio-proiektu hauek aurreikusten dira:

- Laguntza mota guztiei eta baldintzei buruzko informazio-triptikoak banatzea postontzietan, araudi berrian atzemandako aldaketak nabarmenduta.
- Plan honen bultzatzaile izaki, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren web-orriaren diseinua hobetzea eta bertan dagoen informazioa eguneratua izatea, dauden laguntza mota guztien inguruan.
- Eskaera-epeak noiz irekitzen diren prentsan argitaratzea.

6.2. Publizitate-kanpainak

- II. Planaren indarraldian, hainbat komunikabidetan publizitate-kanpainak egitea euskal familia-politikaren oinarri diren printzipio eta balioen gainean, baita azken urteotako lorpenen gainean ere. Familia-politikak komunikabideetan ia etengabeko presentzia izatea bermatzeko adina kanpaina egin beharko dira.

6.3. Argitalpenak

- Familia Zuzendaritzaren web-orrian, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen I. Planaren ebaluazioetarako eta Planaren Ebaluazio-memoriarako lasterbidea izatea, indarraldi guztian.

- Europar Batasuneko herrialde aurreratuenetan indarrean dauden familia-politikako neurri garrantzitsuenekin alderatzeko txostena argitaratzea.

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren Familia Zuzendaritzaren web-orrian hobekuntzak egitea, familiari eta familia-politikari buruzko dokumentazio-fondoetarako sarbidea errazte aldera: hemeroteka, araudia, monografiak eta aldizkako argitalpenak.

6.4. Biltzarrak eta Jardunaldiak

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Familia Politikari buruzko Nazioarteko Biltzar bat antolatzea, EAEko eta beste Autonomia Erkidegoetako adituek ez ezik, izen handiko nazioarteko adituek ere parte hartuz, Europako herrialde aurreratuenetan aplikatutako politiken inguruko, eta batez ere, azken joeren inguruko datuak eta esperientziak helaraztearren.

- Beste erakunde publiko eta pribatuek antolatutako biltzar, jardunaldi eta foroetan parte hartzea, familia-politikarekin zuzeneko edo zeharkako loturarik badute.

7. ildo estrategikoa.- Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea

Elkartze-mugimendua indartzea da ildo estrategiko honen xedea, familiari arreta eta babesa emateko jarduerak eta proiektuak garatzen dituzten erakundeentzako laguntza antolatuta, eta elkartze-mugimendu horren bitartez eta erakundeen arteko parte-hartze bideen bitartez herritarrei parte hartzeko bideak zabalduta.

7.1. Familiaren eremuan aritzen diren erakundeak indartzea

7.2. Herritarren parte-hartzea sustatzea

7.1. Familiaren eremuan aritzen diren erakundeei laguntzea

II. Plan honen esparruan, aurreko etapan garatutako ahaleginei eustea ezinbestekoa da, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren arloko programak eta jarduerak gauzatzen dituzten erakundeekin diru-laguntzetan oinarritutako harremana ezartzeko ahaleginei, eta bereziki:

- lan-arloko eta familiaren bizitza bateratzeko premiarekin loturikoak —besteak beste, erantzunkidetasuna sustatzekoak—,
- seme-alabak dituzten familien ekarpen soziala agerian uztera bideratutakoak,
- emakumeen lorpen sozialen balioespen positiboa ematen dutenak, aukera-berdintasuna bultzatuta,
- seme-alaben heziketan eta zaintzan erantzunkidetasuna sustatzera bideratutakoak,
- oro har, familien egoerari eta premiei buruzko kontzientziazioa lortzera bideratutakoak,
- lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko neurriak abiarazteko premiari dagokionez, lan-arloko gizarte-eragileak kontzientziatzera bideratutakoak,

- seme-alaben ardura duten familien bizi-kalitatea hobetzen dutenak,

- familiaren eta lanbidearen arloko erantzukizunak bateragarri egitera bideratutakoak,- seme-alaben ardura duten familien, eta bereziki, urrakortasun-egoera berezian dauden familien errealitatea adieraztea xede dutenak.

7.2. Herritarren parte-hartzea sustatzea

Familiei Laguntzeko II. Plan honen esparruan, eta herritarren parte-hartzea indartzeko eta sustatzeko asmoz, Familiaren Euskal Kontseilua sortuko da; 1.5. ildo estrategikoan adierazitakoari jarraiki, Kontseilu horri atxikiko zaizkio Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra eta Familiari laguntzeko Erakundeen Batzordea, honako hauen ordezkaritza bermatuta, betiere: administrazio publikoena, enpresaburuen elkarteena eta sindikatuena, eta administrazio honetako Elkarteen edo Fundazioen Erregistroan erregistratutako irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuena, edo kasuan kasu, dagozkien Erregistro Publikoetan erregistratuta daudela frogatzen dutenena, baldin eta familiari arreta, laguntza eta babesa ematea badute helburu nagusi.

Erakundeen arteko bide horiei dagokienez, parte-hartze aktiboagoa eta dinamikoagoa bultzatu eta indartu behar da, eta horretarako, bi neurri osagarri antolatuko dira:

- Dinamizatzeko arduradun bat izendatzea.

- Elkartrukerako bide iraunkor bat ezartzea, Familia Zuzendaritzaren web-orrian eztabaida-foro bat abiarazita, etengabe eguneratu eta elikatuko dena.

8. ildo estrategikoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea

Gizarteari, oro har, eta bereziki, familiaren inguruan diharduten gizarte-eragileei informazioa eskaintzea lortu nahi dugu ildo estrategiko honekin; hain zuzen ere, familiaren gaineko eta gure inguruan indarrean dauden familiari laguntzeko politiken gaineko informazioa.

8.1. Familiaren Behatokia sortzea

8.2. Familiari laguntzeko sistemei buruzko informazioa biltzea

8.3. Familia-errealitateari buruzko azterlanak egitea

8.1. Familiaren Behatokia sortzea

Familiaren Behatokiaren egitekoa honako hau izango da: Euskal Autonomia Erkidegoan familia-egituren errealitatea etengabe aztertzea, eta Lege hau aplikatuz garatutako politiken eragina aztertzea. 1. ildo estrategikoan aurreikusi dugu Behatokia arautzeko araudia. Familiari laguntzeko Legearen bitartez sortu beharko da, eta lege horren esparruan, honako eginkizun nagusi hauek esleituko zaizkio:

- Familia-egituren premiak eta bizi-baldintzak aztertzea, eta horiek hobetzeko jardunak eta programak proposatzea administrazio eskudunei.
- Etxeko indarkeriaren egoeren errealitatea eta bilakaera ezagutzea, zerbitzu- eta prestazio-eskaintzan hobekuntzak txertatzeko gomendioak eta proposamenak egite aldera.
- Familiari arreta eta laguntza emateko eremuan, administrazioaren jardunak ebaluatzea.
- Eskatzen duten administrazioei aholkularitza ematea familiari laguntzeko jardunen inguruan.
- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorrari informazioa ematea aldizka, Kontseiluan egindako txostenak eta azterlanak bidalita, baita aholkularitza ematea ere, eskatzen duenean.
- Ordenamendu juridikoa familiaren premietara egokitzeari buruzko informazioa ematea Administrazio eskudunei, eta araudi berriak ezarri edo daudenak aldatzeko proposatzea.
- Informazio-kanpainen bitartez, familia-egituren bilakaerari eta egitura horien guztien

eskubide-berdintasunari buruzko jakintza ezagutaraztea iritzi publikoari, sentsibilizazioa lortze aldera.

8.2. Familiari laguntzeko sistemei buruzko informazioa biltzea

Familia-politikako ekimenak eta ekimen horien esparruan antolatutako tresna guztiak familien egiazko premietara behar bezala egokitzen direla bermatzeko, hiru lan-ildo aurreikusten dira:

- Alde batetik, autonomiako, Estatuko, Europako eta nazioarteko mailan gai honi lotutako literatura zientifikoa biltzen duen dokumentazio-fondo espezializatua etengabe eguneratuko dela bermatzea, baita araudiei buruzko dokumentazio-fondoa ere, gure Autonomia Erkidegoan eta gainerakoetan, Estatuan eta EBn indarrean dauden araudiak eskura izatea ahalbidetzeko.

- Bestetik, aurreko paragrafoan aipatutako bibliografia- eta araudi-fondoak ustiatuta lortutako dokumentu-azterketak eskaintzea Familiaren Behatokiari, Behatokiaren eginkizunak hobeto eta arinago betetzeko lagungarri izan daitezkeen gai espezifikoen inguruan.

- Eta bukatzeko, Planean sartutako neurri guztien aplikazioari dagozkion estatistika-datuak etengabe ordenatu eta automatizatuko direla bermatzea, une oro eta ahal den gorabehera txikienarekin, egiazko egoera zein den jakin ahal izateko, eta datu horiek Familiaren Behatokiaren esku jartzea.

8.3. Familia-errealitateari buruzko azterlanak egitea

Familia-errealitatea etengabe aldatzen denez, eta familiek askotariko eginkizunak hartzen dituztenez beren gain, horren guztiaren inguruko jakintza —kuantitatiboki nahiz kualitatiboki— behar bezalakoa izan dadin bermatzeko azterketa- eta ikerketa-ildo bat sustatzea ezinbestekoa da; bereziki, familia-unitatearen seme-alaben heziketarekin eta inoren laguntza behar duten edo egoera urrakorrean dauden kideen arretarekin lotutako ildoa izango da.

9. ildo estrategikoa.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Ildo estrategiko honen arabera, etengabeko jarraipen-sistema bat ezarriko da; ekintzen jarraipen-txostenak egin beharko dira urtean behin, eta indarraldiaren amaieran, ebaluazio-txosten orokor bat osatu beharko da, honako hauek bilduta: neurrien betetze-maila, aurrekontu-

gauzatzea, aplikatutako neurrien eraginari eta estaldurari buruzko emaitzak, eta azkenik, Planean antolatutako tresna guztien diseinuarekin eta kudeaketarekin lotutako alderdiak.

Etengabeko jarraipen hori egingarri izan dadin, egoki iritzi diogu Planean honako elementu hauek txertatzeari:

- Alde batetik, ebaluazio-adierazleak, programatutako ekintza guztien betetze-maila egiaztatzeko lagungarri baitira.
- Eta bestetik, neurriak betetzeko programazioa, non neurri bakoitzaren hasiera-data, aurrekontua edo gutxi gorabeherako kostua zehazten diren.

Planaren VIII. eta IX. ataletan zehaztu ditugu ebaluazioaren eta programazioaren adierazleak, hurrenez hurren.

VII. NEURRIETAN EZARRITAKO EBALUAZIO ADIERAZLEAK

Neurria	Erakunde eskudunak	Gauzatzearen adierazleak.
1. ildo estrategikoa.- Araudia garatzea		
1.1. Familiei Laguntzeko Lege Proiektua	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Jaurlaritzaren beste Sailei, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Zirriborroa Jaurlaritzan izapidetzea. • Legebiltzarrari aurkeztea.
1.2. Familia Bitartekotzaren Lege Proiektua	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Jaurlaritzaren beste Sailei, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Zirriborroa Jaurlaritzan izapidetzea. • Legebiltzarrari aurkeztea.
1.3. Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.

1.4. Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Dekretua	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.
1.4. Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen Dekretua	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.
1.4. 2 urtetik beherako haurrak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeko laguntzak arautzen dituen Dekretua	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.
1.4. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherakoentzako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea.

		• Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.
1.5. Familiaren Euskal Kontseilua arautzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa honako hauei aurkeztea: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuordetzari, Foru Aldundiei eta Udalei; eta egoki iritzitako ekarpenak eta/edo aldaketak txertatzea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.
1.6. Familiaren Behatokia arautzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Araudiari buruzko Zirriborro teknikoa lantzea. • Zirriborro teknikoa organismo eskudunei aurkeztea. • Zirriborro berria beste gizarte-eragileei aurkeztea, egoki iritzitako ekarpenak txertatzeko eta parte hartzeko prozesuaren esparruan. • Onartzeko izapidetzea.

2. ildo estrategikoa.- Seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa ematea		
2.1. Familiaren kargurako seme-alabengatiko laguntza-programa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, laguntza motaren arabera. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan. • Urte bakoitzeko familia onuradunen kopurua. • Laguntza horietara bideratutako gastuaren bilakaera. • Laguntzen, familia onuradunen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. • Zenbatekoen urteko egokitzea.
2.2. Hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherakoentzako haurrentzako arreta-zentroen sarea sendotzeko diru-laguntza programa	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako diru-laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan. • Urte bakoitzeko familia onuradunen kopurua. • Diru-laguntza horietara bideratutako gastuaren bilakaera. • Laguntzen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera.
3. ildo estrategikoa.- Lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egitea		
3.1. Seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzako laguntza ekonomikoen programa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, laguntza motaren arabera. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, lan-erregimen motaren arabera: besteren konturakoa edo autonomoa. • Laguntzen estalduraren bilakaera, Lurralde Historikoaren, sexuaren eta familia motaren arabera. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan. • Laguntza horietara bideratutako gastuaren bilakaera. • Laguntzen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. • Zenbatekoen urteko egokitzea.

3.2. Inoren laguntza behar duten senitarteko helduak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzako laguntza ekonomikoen programa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, laguntza motaren arabera. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, lan-erregimen motaren arabera: besteren konturakoa edo autonomoa. • Laguntzen estalduraren bilakaera, Lurralde Historikoaren, sexuaren eta familia motaren arabera. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan. • Laguntza horietara bideratutako gastuaren bilakaera. • Laguntzen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. • Zenbatekoen urteko egokitzea.
3.3. Seme-alabak zaintzeagatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileen ordezkoak kontratatzeko enpresentzako laguntza-programa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, laguntza motaren arabera. • Emandako laguntza berrien kopuruaren banaketa, lan-erregimen motaren arabera: besteren konturakoa edo autonomoa. • Enpresentzako laguntzen eragina: ordezkatze-indizea eta enplegua sortzeko ahalmena. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan. • Laguntza horietara bideratutako gastuaren bilakaera. • Laguntzen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. • Emandako laguntzekin egindako kontratazio motak.
3.4. 2 urtetik beherakoak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeko laguntza-programa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Aurkeztutako eskaeren kopurua. • Emandako laguntzen kopurua. • Ezezkoa emandako eskaeren kopurua. • Laguntza horietara bideratutako gastua. • Laguntzen eta gastuaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. • Emandako laguntzekin egindako kontratazio motak.

4. ildo estrategikoa.- Familiei laguntzeko zerbitzuak		
4.1. Familia ugarien tituluak eta txartelak	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Egindako izapidetzeen kopurua.
4.1. Familia Ugarientzako Gida	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Argitaratze-data. • Editatutako aleen kopurua. • Zabaldutako aleen kopurua.
4.1. Izatezko Bikoteen Erregistroa	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Bideratutako eskaeren eta egindako erregistroen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera.
4.2. 3 urtetik beherakoentzako haur-eskolak	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Udalak.	• Urtean sortutako tokien kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. • Urtean lortutako estaldura, Lurralde Historikoaren arabera.
4.3. Babes ofizialeko etxebizitzetan nahitaezko erreserba adingabeko seme-alaben ardura duten guraso bakarreko familientzat	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Planaren indarraldiko urteetako sustapenetan gordetako etxebizitzen kopurua, edukitze motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. • Adingabeko seme-alaben ardura duten guraso bakarreko familiei esleitutako etxebizitzen kopurua guztira, edukitze motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.3. Aukerako erreserba gehigarriak	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Planaren indarraldian egindako sustapenetan txertatutako aukerako erreserba gehigarrien kopurua, edukitze motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.3. Gehienez %3ko erreserba BOEetan familia ugarientzat edo 5 kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Familia ugarientzat edo 5 kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat gordetako babes ofizialeko etxebizitzen kopurua, edukitze motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.3. Familia ugariek etxebizitza erosteko laguntzak	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Familia ugariei etxebizitza erosteko emandako laguntzen kopurua, urtearen eta Lurralde Historikoaren arabera.

4.3. Familia ugariek etxebizitza trukatzea	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Familia ugariek trukatutako etxebizitzen kopurua, urtearen eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.3. Familia ugariek etxebizitza birgaitzeko laguntzak	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	• Etxebizitza birgaitzeko familia ugariei emandako laguntzen kopurua, urtearen eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.4. Larrialdi-egoeretarako familia-ostatuko zerbitzuak	20.000 biztanle baino gehiagoko udalak. Foru Aldundiak.	• Horrelako zerbitzuen kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera. • Larrialdietarako ostatuetako tokien kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.4. Atseden hartzeko zerbitzuak – Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak	Udalak. Foru Aldundiak.	• Urteko estaldura, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.4. Atseden hartzeko zerbitzuak – Aldi baterako Egonaldiak	Foru Aldundiak	• Aldi baterako egonaldi-eskaeren urteko kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera. • Aldi baterako egonaldien urteko kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.4. Familia-arloko esku-hartze zerbitzuak (familiako orientazioa, bitartekotza eta terapia)	Udalak	• Aurkeztutako eskaeren urteko kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera. • Emandako zerbitzuen urteko kopurua, udalerriaren eta Lurralde Historikoaren arabera.
4.4. Familia Elkarguneak	Foru Aldundiak	• Familia Elkarguneen kopurua eta kokapena. • Urtean artatutako familien kopurua.
5. ildo estrategikoa.- Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika		
5.1. Ondorengoengatiko zerga-kenkariak	Foru Aldundiak	• Kenkarien onuradun diren aitorpenen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. • Hiru Lurralde Historikoetan aplikatutako kenkarien zenbatekoa. • Kenkari horien estaldura, beren kargurako seme-alabak dituzten familien guztirako kopuruari dagokionez. • Datu horien bilakaera Planaren indarraldi osoan.

5.2. Aurrekoengatiko zerga-kenkariak	Foru Aldundiak	• Kenkarien onuradun diren aitorpenen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. • Hiru Lurralde Historikoetan aplikatutako kenkarien zenbatekoa. • Kenkari horien estaldura, beren kargurako aurrekoekin bizi diren familien guztirako kopuruari dagokionez. • Datu horien bilakaera Planaren indarraldi osoan.
5.3. Foru-eremuko bestelako zerga-kenkariak	Foru Aldundiak	• Kenkarien onuradun diren aitorpenen kopurua, Lurralde Historikoaren eta kenkari motaren arabera. • Hiru Lurralde Historikoetan aplikatutako kenkarien zenbatekoa, kenkari motaren arabera. • Kenkari horien estaldura, aplikatutako kenkari motaren arabera. • Datu horien bilakaera Planaren indarraldi osoan.
5.4. Foru-tasetan salbuespenak eta hobariak familia mota jakin batzuentzat	Foru Aldundiak	• Deskontuen onuradun diren familien kopurua, tasa motaren arabera. • Aplikatutako deskontuen zenbatekoa, tasa motaren arabera. • Lurralde Historikoetako deskontuen arteko alderaketa. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan.
5.4. Tasa akademikoetan salbuespenak eta hobariak familia mota jakin batzuentzat	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	• Deskontuen onuradun diren familien kopurua, tasa motaren arabera. • Aplikatutako deskontuen zenbatekoa, tasa motaren arabera. • Lurralde Historikoetako deskontuen arteko alderaketa. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan.
5.4. Udal-tasetan salbuespenak eta hobariak familia mota jakin batzuentzat	Udalak	• Deskontuen onuradun diren familien kopurua, tasa motaren arabera. • Aplikatutako deskontuen zenbatekoa, tasa motaren arabera. • Lurralde Historikoetako deskontuen arteko alderaketa. • Datu horien bilakaera indarraldi osoan.

6. ildo estrategikoa.- Gizarte-sentsibilizazioa		
6.1. Informazio-kanpainak	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Urtean banatutako triptikoen kopurua. • Komunikabide guztietan egindako informazio-iragarkien kopurua. • Familia Zuzendaritzaren web-orrian emandako informazioaren kalitatea, argitasuna eta eguneratze-maila, dauden laguntzen gainean. • Erabiltzaileek web-orrian egindako kontsulten kopurua. • Familia Zuzendaritzak erantzundako galderen kopurua, kontsulta motaren arabera. • Planaren indarraldi osoan, Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren ordezkariek parte hartutako ekitaldien kopurua; hain zuzen ere, laguntzak aurkezteko, eta II. Plan honetako hobekuntzak eta berrikuntzak deskribatzeko eta jakinarazteko ekitaldien kopurua.
6.2. Publizitate-kanpainak	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Planaren indarraldian egindako kanpainen kopurua eta mota, komunikabidearen arabera. • Komunikabideetan izandako presentziaren denbora.
6.3. Argitalpenak	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Planaren indarraldi osoan Familia Zuzendaritzak editatutako argitalpenen kopurua. • Familia Zuzendaritzaren ekimenez egindako eta web-orriaren bidez eskuragarri dauden argitalpenen kopurua. • Aldizkakoak edo monografikoak izan, kanpo-argitalpenetan Familia Zuzendaritzak egindako parte-hartzeen kopurua.
6.4. Biltzarrak eta Jardunaldiak	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Familia Politikari buruzko Nazioarteko Biltzarra antolatzea. • Biltzarreko bertaratze-maila. • Parte-hartzeen kalitatea. • Biltzarrean aurkeztutako ponentziak eta komunikazioak argitaratzea. • Beste erakunde publiko nahiz pribatuek antolatutako Jardunaldi eta Biltzarretan Familia Zuzendaritzak izandako parte-hartzeen kopurua.

7. ildo estrategikoa.- Elkartze-mugimendua eta herritarren parte-hartzea sustatzea		
7.1. Familiaren eremuan aritzen diren erakundeak indartzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Sinatutako hitzarmenen kopurua, Lurralde Historikoaren eta garatu beharreko jarduera motaren arabera. • Emandako diru-laguntzen kopurua, Lurralde Historikoaren eta garatu beharreko jarduera motaren arabera. • Hitzarmenetako eta diru-laguntzetako gastuaren bilakaera, Lurralde Historikoaren eta jarduera motaren arabera. • Hitzarmen eta diru-laguntzen esparruan garatutako jardueren eragina. • Diru-laguntzen eta hitzarmenen esparruan adostutako ekintzen betetze-maila egiaztatzea ahalbidetuko duen jarraipen-sistema abiaraztea.
7.2. Herritarren parte-hartzea sustatzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Familiaren Euskal Kontseilua sortzea. • Familiaren Euskal Kontseiluaren dinamizatzailea izendatzea. • Familia Zuzendaritzaren web-orrian elkartrukerako foro iraunkorra diseinatu eta abiaraztea. • Elkartrukerako foroa etengabe eguneratu eta dinamizatzea.
8. ildo estrategikoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan familia-errealitateari buruzko jakintza aztertzea eta zabaltzea		
8.1. Familiaren Behatokia sortzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Behatokia arautzeko araudia onartzea. • Baliabide materialez eta giza baliabideez hornitzea. • Barne-funtzionamenduko araudia egin eta onartzea. • Planaren indarraldian Behatokiaren ekimenez egindako ekintzen kopurua, jarduera motaren arabera. • Behatokiaren aholkularitza behar izan duten administrazio publikoek eskatuta, Behatokiak ebatzitako kontsulten kopurua.
8.2. Familiari laguntzeko sistemei buruzko informazioa biltzea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Familiari laguntzeko ekimen guztiei buruzko informazio-sistema estatistikoa diseinatzea. • Etengabe eguneratzea ahalbidetuko duen tresna informatikoa diseinatzea.

		• Familia Zuzendaritzaren web-orrian magnitude nagusien sistema abiaraztea eta aldizka eguneratzea.
8.3. Familia-errealitateari buruzko azterlanak egitea	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Familia Zuzendaritzak egindako edo agindutako azterlanen kopurua, ikertutako gaiaren arabera. • Azterlanen emaitza nagusiak ezagutaraztea Zuzendaritzaren web-orrian eta argitalpen espezializatuetan.
9. ildo estrategikoa.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa		
9.1. Planaren gauzatzearen jarraipena	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Planaren gauzatze-magnitude nagusien etengabeko jarraipena egitea, Informazioa Biltzeko Sistemak emandako datuen bitartez. • Urteko jarraipen-txostena egitea. • Jarraipen-datu nagusien berri ematea Planean parte hartu duten erakunde publiko eta pribatu guztiei. • Sailaren web-orrian datu horiek zabaltzea.
9.2. Planaren ebaluazioa	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	• Planaren ebaluazioko azken txostena idaztea. • Ebaluazioan ateratako datu nagusien berri ematea Planean parte hartu duten erakunde publiko eta pribatu guztiei. • Sailaren web-orrian datu horiek zabaltzea.

VIII. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Familia Zuzendaritzaren erantzukizuna da Plan hau gizartean ezagutaraztea, baita Planaren puntu guztien aplikazioa dinamizatzea eta Planean bildutako neurri eta programa guztiak gauzatzearen jarraipena egitea ere.

Betekizun horretarako, Familia Zuzendaritzak behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriko ditu abian.

Plana zabaltzeko, plana paperean argitaratu eta familiari begirako laguntzaren eremuan diharduten erakundeei banatuko zaie, baita erabiltzaileen erakundeei, gaiarekin zerikusia duten profesionalak prestatzeko zentroei eta komunikabide espezializatuei ere. Bestalde, Planaren testu osoa sartuko da Jaurlaritzaren web-orrian, Euskadi.net orrian alegia, eta Gizarte.net atarian, hau da, Gizarte Zerbitzuen informazio-atarian.

Planaren aplikazioa bultzatzeko, batez ere administrazioen arteko koordinazioa behar duten neurriei, edo beste Sail edo Administrazio batzuen erantzukizuna diren neurriei dagokienez, Familia Zuzendaritzak behar adina bilera antolatu eta dinamizatuko du, alderdi guztiak koordinatzeko.

Planean xedatutako neurrien aplikazio-prozesuaren eta programa guztien betearazte-mailaren jarraipena egiteko, Familia Zuzendaritzak hartuko du bere gain sei hilean behin memoriak egiteko erantzukizuna eta Familia Batzordeei jakinarazi eta Ebaluazio Zuzendaritzara igorriko ditu, Planaren urteko ebaluazioetan aintzat hartu eta txerta dezaten memoria horien edukia.

Ebaluazio Zuzendaritzari dagokio Planaren ebaluazioa egitea.

Horretarako, urteko ebaluazio bat egingo da, non adieraziko den Planean aurreikusitako jardunen eta bereziki, aurreikusitako laguntza-programa guzti-guztien betetze-maila, honako hauek zehaztuta: onuradun kopurua, aurrekontua gauzatzean aurreikuspenekiko egokitzea; halaber, erabiltzaile izan daitezkeenen artean izandako harrera-indizeak ere aurkeztu behar dira, eskaera potentzialaren estaldura-mailarekin batera.

Bigarrenik, Ebaluazio Zuzendaritzaren ardura izango da Planaren Gauzatzeari buruzko Azken Memoria egitea; memoria horretan, urteko ebaluazioetan erabilitako aplikazio- eta betearazte-adierazleez gain, eragin-adierazleak eta herritarren oro har, eta bereziki, programa eta zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetze-mailari eta balioespenari dagozkion adierazleak ere txertatu behar dira.

Hirugarrenik, Planaren indarraldian, Ebaluazio Zuzendaritzak bi bateratze-programa ebaluatuko ditu, programa horien aplikazioan izan daitezkeen disfuntzioak zuzentzearren, eta diseinua eta funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitearren. Hasteko, 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeagatiko laneko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartzeko laguntza-programa ebaluatuko da, dagoeneko hiru urteko ibilbidea egin baitu. Eta aurrerago, inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik, lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko laguntza-programaren diseinua eta aplikazioa ebaluatuko da, betiere programa sendotutakoan.

IX. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. PLANAREN AURREKONTUA

Diru-laguntzen egitasmo hauek arautzen dituzten laguntza-arauak zertan gauzatzen diren alde batera utzita, Planean sartutako programa, neurri eta zerbitzuen gutxi gorabeherako kostua 2.781 milioi euro da; horietatik 2.740,8 milioi euro Planaren indarraldiko 5 urteetan erabiliko dira eta gainerako 40 milioiak honako honetarako izango dira: norberaren kargurako seme-alabak izateagatiko laguntza ekonomikoen programetan, eta lan-arloko eta familiaren bizitza bateragarri egiteko laguntzen programetan emandako urte anitzeko laguntzek eragindako konpromiso-krediduak estaltzeko.

Hona hemen gutxi gorabeherako kostuaren banaketa, ildo estrategikoaren arabera:

Ildo estrategikoak	2006	2007	2008	2009	2010	2006-2010
1. Araudia garatzea	0	0	0	0	0	0
2. Laguntza ekonomikoa	24.484.790	30.631.028	32.647.614	33.936.669	35.781.729	157.481.830
3. Bateragarritasuna	24.653.034	41.180.984	47.055.740	51.240.325	55.649.080	219.779.164
4. Laguntzazerbitzuak	203.728.963	219.657.462	232.299.784	245.406.374	258.802.937	1.159.895.521
5. Zerga-politika	230.351.777	234.776.000	239.291.000	243.897.800	248.598.236	1.196.914.813
6. Sentsibilizazioa	437.505	450.630	464.149	478.074	492.416	2.322.773
7. Elkartze-mugimendua sustatzea	579.258	596.636	614.535	632.971	651.960	3.075.359
8. Familia-errealitateari buruzko azterlanak egitea	183.600	189.108	394.781	200.625	206.643	1.174.757
9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa	30.000	31.000	32.000	33.000	66.000	192.000
Guztira	**484.448.928**	**527.512.849**	**552.799.603**	**575.825.837**	**600.249.001**	**2.740.836.217**

Ikus daitekeenez, bi ildo estrategikotako gastua nabarmentzen da: alde batetik, ondorengo eta aurrekoengatiko kenkarien bidez errenta berriz banatzeko zerga-neurriak, ia 1.200 milioi euroko gastuarekin; eta bestetik, familiari laguntzeko zerbitzuak, horietan ere ia 1.200 milioi euro baliatuko direla bosturteko horretan